sagar	<i>manzana</i>	labe	<i>horno</i>
udare	<i>pera</i>	ikatz	<i>carbón</i>
aran	<i>ciruela</i>	egur	<i>leña</i>
gaztaiñ	<i>castaña</i>	kezulo, kebide	<i>chimenea</i>
piku	<i>higo</i>	auspo	<i>fuelle</i>
gerezi	<i>cereza</i>	arin, azkar	<i>ligero, de prisa</i>
marrubi	<i>fresa</i>	geldi	<i>espacio</i>
urr	<i>avellana</i>	laisterka	<i>corriendo</i>
intxaur	<i>nuez</i>	oraño, orañiken	<i>todavía</i>
mats, maats	<i>uva</i>	bakar, bakarrik	<i>sólo, único</i>
azal	<i>corteza</i>	iya	<i>casi</i>

### ADITZ-JOKOA – Conjugación

#### IZAN (haber)

objeto singular (lo)		objeto plural (los)	
nik	nuen	nituen	(yo tenía) o (había)
zuk	zenuen	zenituen	(tú tenías)
berak	zuen	zituen	(él tenía)
guk	genuen	genituen	(nosotros habíamos)
zuek	zenuten	zenituten	(vosotros habíais)
aiek	zuten	zituten (1)	(ellos habían)

Forma negativa: ez nuen, ez zenuen, ez genituen ...

**NUMERALES ORDINALES:** Se forman añadiendo "GARREN" a todos los números, menos a "bat", que hace "LENEN-GO" o "LENBIZIKO".

(1) Algunas veces se emplea la forma "zituzten".

## 8ª. LECCION

### FORMAS VERBALES CON EL AUXILIAR DE PASADO (nuen...)

*Añadiendo este auxiliar de pasado a las tres formas de un verbo transitivo cualquiera, se obtiene:*

nere lagun batek IKUSI ZUEN	(lo VIO un amigo mío)
neskameak EROSI ZITUEN	(los COMPRO la criada)
EZ GENUEN ongi ENTZUTEN	(no OIAMOS bien)
zer JATEN ZENUTEN Paris'én?	(qué SOLIAIS COMER en París?)
marrubiak EKARRIKO GENI-TUEN	(HUBIERAMOS TRAIIDO fresas.)
EZ ZUTEN'etxea SALDUKO	(no HUBIERAN VENDIDO la casa).

### SUFIJOS "LA" (que), "LAKO" (porqué), y "NEAN" (cuándo)

*Estos sufijos son VERBALES, y se añaden siempre al auxiliar o verbo conjugado, nunca al infinitivo:*

gaur etorri direla	(que han venido hoy)
gure amatxi an bizi dalako	(porque nuestra abuela vive allí)
asko jaten dugunean	(cuando comemos mucho)
etxera doala esan du	(ha dicho que va a casa)
beren ama txarki dagolako	(porque su madre está mal)

*Cuando el auxiliar o verbo conjugado termina en:*

t : *cambia en "da".* DUT – DUDA...(dudala, dudalako...)

n : *se quita esa "n".* NUEN – NUE... (nuela, nuenean...)

r, l, z, : *se añade una "e".* DATOR – DATORRE...  
(ez datorrela, nerekin dabillenean, biar zatorzelako).

*Con estos sufijos y la negación "ez", sólo se invierte el orden del verbo y auxiliar con "la":*

ez dugula ikusi; ikusi ez dugulako; ikusten ez dugunean; ez direla etorriko; ibiltzen ez dalako; etorri ez direnean.

## IRAKURGAI

1. Atzo ikusi nuen. Marrubi asko jan genituen. Iturri-ondoan lizar gazte batzuk ezarri zituten (zituzten). Ikatz ona ekarri zuten atzo. Ez nuen giltza eraman. Nola ikusi zenuen andik? Dan-dana saldu zuen. Laister jakingo genuen. Matsa erosiko nuen. Su ederra egin zuten. Nik emen ezarri nituen. Ez genuen zure aita ikusi.
2. Biar aterako direla entzun dut. Oraino ez dala etorriko esan du. Txikiak giñenean, Iruña'ra joaten giñen. Ezetz esan du, ez dala joango, ama gaxorik dagolako. Eguraldi txarra egin zuelako. Laister ezkonduko direla entzun dut. Gaurkoa txarki egin duzu, eta guztiz arritu naiz, iya beti ederki egiten duzulako. Ez nuen jakin nola egin, egun ortan etorri ez nintzelako. Ez nintzen etorri izotz aundia izan zelako.
3. Igali batzuek azal ta guzti jaten ditugu. Beste batzuen azala berriz, latza izaten da, eta ez da jaten. Urrak bi azal eukitzen ditute (dituzte), bata mea barruan; bigarrena aldiz, oso gogorra gañean.  
Gure mendi eta basoetan fago eta areitz asko ikusten zen len, orain aldiz pinuak sartu ditute (dituzte) toki askotan. Gure lengusuen baserri-ondoan ere, gaztain ederrak zegozen (zuden) gu txikiak giñenean, baño orain pinua besterik ez da ikusten inguruetan.

### 4. Urte batean amabi illabete dire:

I – Urtarrilla	V – Maiatza	IX – Iraila
II – Otsailla	VI – Ekaiña	X – Urria
III – Martxoa	VII – Uztaila	XI – Azaroa
IV – Apirilla	VIII – Abuztua	XII – Abendua

5. ixilik, ixo!  
azkenik, atzenean  
bakoitz, bakotx  
{ esate baterako  
adibidez, adierazbidez }  
noizean bein  
bein edo bein  
beñiola  
eta abar
- callando, ¡silencio!  
al fin, por último  
cada uno  
verbigracia  
por ejemplo  
de vez en cuando  
alguna vez  
en cierta ocasión  
etcétera*

## IDAZKIZUN

1. (*Al dictado*). Lengo igandean Arizkun go lagun baten baserrian egon nintzen. Ederra da basetxea: bean, atari aundia lenengo, eta gero ezkaratza. Goian, alde batera jantokia dago, eta beste aldean logelak. Udazkenean, egurra ekartzen dute negu guzira-ko, eta etxe-atzean ezartzen dute, tellatu txiki baten azpian. Etxe-aurrean berriz intxaurrondo aundi-eder bat dago. Ingu-ruan beste igali-zugaitz asko ikusi nuen: sagar, udare, aran eta gereziak batez ere.
2. (*A traducir*) ¿Qué ha dicho José? ... Que vendrá mañana o pasado. Que su madre no está bien. Que todavía no los ha vendido. Que no irá sólo. Que las peras eran muy ricas.  
¿Cuándo lo has visto? ... Cuando iba (yo) a casa. Cuando venía (yo) de la iglesia. Cuando estaba (él) con un amigo en medio de la calle. Cuando iba (él) corriendo de casa a la heredad.  
¿Porqué has hecho éso? ... Porque era igual. Porque hemos comprado otro. Porque desde anoche estaba sin comer. Porque no he oído bien. Porque eran malas. Porque el padre dijo ayer que sí.
3. Conjuguar el verbo IKUSI con auxiliar de presente, y el verbo SALDU con auxiliar de pasado, ambos en sus tres formas de infinitivo, habitual y futuro.
4. Cambiar en las siguientes frases el auxiliar de presente por su correspondiente de pasado:  
Ongi entzun duzue? Nun erosi dituzu? Nork ezarri du emen?  
Mats asko jaten dugu. Ura besterik (baizik) ez dute edaten.  
Nik ikusi dudalako. Eguraldi ona egin ez dulako.
5. (*A traducir*) EGIN: hicimos, haré, solíamos hacer, ¿qué hicisteis? ¿cuándo lo has hecho? no lo hice bien, lo harán mañana, los suele hacer él sólo.  
ESAN: solía decir (ella), él lo dijo, no lo diremos, ¿qué has dicho?, ¿porqué lo dijiste?, se suele decir, yo no lo he dicho.  
EKARRI: ¿quién los trajo? suelen traer, ¿qué soléis traer? yo los traeré, ¿cuándo lo vas a traer? no lo han traído todavía.

## BEDERATZIGARREN IKASKAIA

### IZTEGI — Vocabulario

jaki, janari	<i>comida, (alim.)</i>	merke	<i>barato</i>
edari	<i>bebida</i>	garesti	<i>caro</i>
askari	<i>desayuno</i>	ugari	<i>abundante</i>
gosari	<i>almuerzo</i>	urri, bakan	<i>escaso, raro</i>
bazkari	<i>comida</i>	bete	<i>lleno</i>
afari	<i>cena</i>	uts	<i>vacío</i>
atsal-askari	<i>merienda</i>	jori	<i>abundante, rico</i>
ogi	<i>pan</i>	gordin	<i>crudo</i>
irin	<i>harina</i>	idor, legor	<i>marchito, seco</i>
ur dai, xingar	<i>tocino</i>	guri	<i>rollizo, tierno</i>
olio	<i>aceite</i>	busti, eze	<i>mojado, húmedo</i>
gatz	<i>sal</i>	zimel, igar	<i>marchito</i>
ozpin	<i>vinagre</i>	ustel	<i>podrido</i>
ardo	<i>vino</i>	gaurkoz	<i>por hoy</i>
sagardo	<i>sidra</i>	egundaño	<i>jamás (hasta hoy)</i>
garagardo	<i>cerveza</i>	... ezik	<i>excepto, menos</i>
esne	<i>leche</i>	... eze	<i>no sólo ...</i>
edontzi	<i>vaso</i>	gaurgero	<i>en adelante</i>
botill	<i>botella</i>	banaz beste	<i>promedio, uno con otro</i>

### SUFIJOS VERBALES DE INFINITIVO

TEA = *artículo*  
TZEA = *artículo*

: lagun on izatea ederra da.  
: urkoari laguntzea bearrez-  
koa da.

TEKO = *para, + infinitivo*  
TEKO = *que + subjuntivo*  
TZEKO = *para + infinitivo*  
TZEKO = *que + subjuntivo*

: ixilik egoteko, agoa itxi  
: biar egiteko esan du  
: ez etorri emen gelditzeko  
: aitak esan du bazkaltzera  
etortzeko.

TEN, TZEN = *gerundio*

: beti edaten ikusten dut  
: egurra txikitzen ari da.

TERA, TZERA = *a + infinitivo*

: ama ikustera joan zen  
: gero bazkaltzera joango gara.

TEAN, TZEAN = *al + infinitivo*

TEAN, TZEAN = *cuando + subjunt.* : tontorrera eldutzean, jarri.

Notas.— “TEKO” y “TZEKO” en su segunda acepción suelen ir acompañados del verbo “esan” u otros que indiquen mandato o ruego.

“TEN” y “TZEN” son gerundios cuando están sólo o seguidos de verbo no auxiliar.

\* \* \*

Algunos adjetivos se convierten en adverbios de modo añadiéndoles “ik” o “rik”.

## 9ª LECCION

### COMPARATIVOS

Con cualidades		Con cantidades	
AIN	BEZAIN, BEZIN	AINBESTE	AINBAT
<i>(tan)</i>	<i>(tan ... como)</i>	<i>(tanto, tantos)</i>	<i>(tanto ... como)</i>
... AGO	BAÑO ... AGO	GEIAGO	BAÑO ... GEIAGO
<i>(más)</i>	<i>(más ... que)</i>	<i>(más)</i>	<i>(más ... que)</i>
		GUTXIAGO	BAÑO ... GUTXIAGO
		<i>(menos)</i>	<i>(menos ... que)</i>
... EN, (ENA, ENAK)		GEIEN, GEIENA, GEIENAK	
<i>(el más, los más)</i>		<i>(el que más, la mayoría de)</i>	
... EGI		GEIEGI	
<i>(demasiado...)</i>		<i>(demasiado)</i>	

*El comparativo "como" se expresa así:*

BEZALAKO, *seguido de un nombre o del verbo "ser".*

...n BEZALA, (BEZELA, BEKELA), *seguido de cualquier otro verbo.*

#### ADIBIDEZ (Ejemplos)

Zergatik ibilli ziñaten ain geldiro?

Gure etxea ez da zuena bezin aundia.

Zertarako erosi duzu ainbeste ogi?

Emen ez dago an ainbat baso.

Miren txikiagoa da, baño zaarragoa.

Ikatza baño beltzagoak ziren aren begiak.

Zeozar geiago artuko duzue, ezta?

Zuk nik baño diru geiago eukitzen duzu.

Gaur emezortzi gagoz (gaude); atzo gutxiago egon giñen.

Iya beti, mutillak neskatillak baño gutxiago etortzen dire.

Iñaki da gazteena.

Ango bei geienak zuriak dire.

Au bezalako erririk ez dago. Zuk esan duzun bezala egin dut.

Mai aiek txikiegiak ziren.

Ardo geiegi edan zuten.

## IRAKURGAI

1. Bost anai-arreba dire: Maite da txikiena, eta Iñaki zaarrena. Zaarrena ezezik, aundiena ere bai. Aita bezain luzea da. Bigarrena herriz txikiago eta lodiago da: ama bezalakoa. Baño lodiena irugarrena da: guri-guri dago. Mikel, laugarrena, daretan argiena eta alaiena. Maite ezik, beste laurak ikastetxera joaten dire, eta orduan bai ixilik gelditzen dala etxea! Aldiz, barruan dagozanean (daudenean), nork ixilik euki!.
2. Aurreko bi urteetan sagardo gutxi egin zuten, sagar gutxi izan zelako, baño aurten ugari dator. Eta sagarra ezezik, udara, okaran eta beste igaliak ere bai. Etxe au polita da, baño gutretzat txikiagia. Gaur ere bero da, baño ez geiegi; atzokoa aundiagoa izan zen. Zure ama ez da nerea bezalakoa: alaiagoa da.
3. Erenegun ogeitazapi lagun etorri ziñaten: gaur ogeitabost. Igaz ere, lenengo egunetan ogeitamar baño geiago etortzen ziren, baño azkenean emezortzi baizik ez. Urtea luzea da, eta batzuk aspertu egiten dire: zintzoenak bakarrik eltzen dire azkeneraño.
4. Uda au igazkoa baño legorragoa izan da. Au jatea eziña da: sua bezin bero dago. Neretzat au da politena. Gu, aiek baño, bi egun gutxiago egon giñen. Neguan, gauak egunak baño luzeagoak izaten dire. Zu baño pixka bat aundiago eta lodiago da. Ori bai gizon zuzena! Altsasu Iruña baño askoz txikiagoa da. Batzuk ez dute egin nik esan nuen bezala. Bietan txikiena da sendoena. Oiek bai aritz ederrak!.

\* \* \*

izan ere  
onela, orrela, ala  
onelako, orrelako, alako  
ontara, ortara, artara  
...ago ta ...ago  
gero ta ...ago  
ainbat obeki  
ainbat obe  
geienetan  
gutxienez  
oi danez  
alatsu

*en efecto, es que ...  
así (de este, de ése, de aquél) modo  
semejante; como éste (ése, aquél)  
a este, a ése, a aquél  
cuanto más... más...  
cada vez más...  
tanto mejor (modo)  
tanto mejor, tanto más bueno (cualidad)  
la mayor parte de las veces  
por lo menos  
según costumbre  
parecido, parecidamente*

## IDAZKIZUN

1. (*Al dictado*). Errialde batzutan geiago jaten da afarian bazkarian baño. Emen, janariekin, gutxienak artzen dute esnea; geienak ardoa edo ura edaten dute. Ez dut egundaño gaur ainbat garagardo edan: bero dago, izan ere! Bero danean, pozik edaten dut sagardoa. Zein edari da emen garestiago, ardoa ala esnea? An, askoz merkeagoa da esnea. Oraingo olio au ez da lengoa bezin ona. Itoka (de prisa) jatea ez da ona.
2. (*A traducir*) *Más frío que la nieve. Más negro que el carbón. ¿Quién es aquí el más viejo? ¿Cuál es nuestro monte más alto? ¿Porqué vas tan ligero? Este otro es más bonito, ¿no?. Al oír eso se quedó tan blanca como la pared. Allí hay más montes que aquí. Estos son más baratos que los tuyos. ¿Para qué has traído tantas peras? Esto está más frío que el hielo. ¿Es tu hermano mayor que tú?*
3. (Euskeraz erantzun). ZERTARAKO DIRE: esnea?, begiak?, ikatza?, iriña?, agiñak?, oiñak?.  
ZER EGITEN DUTE: sukaldariak?, errotariak?, osagilleak?, arotzak? (Ikusi itz auek 116 garren orrialdean).
4. (*Poner tres ejemplos de infinitivo con cada uno de los sufijos verbales de esta lección, y su traducción correspondiente*).
5. (*A traducir*) *Cada vez el viento era mayor. Montes como esos suelen ser los más bonitos. En adelante, nosotros también lo haremos así, (de éste modo). Excepto dos, todos los demás se han podrido. ¿Qué sueles hacer los domingos?. La mayor parte de las veces suelo ir a casa de la tía Trini. Según costumbre, detrás del mal tiempo ha' llegado el sol. ¿Cuántos niños tiene? Por lo menos, siete. ¿Cuándo vamos a hacer otra comida como aquélla? Sí; lo haré de ese modo, como tú has dicho. ¿Dónde se vende aceite como ése? Así (de aquél modo) lo hicieron y entonces quedaron contentos.*



## AMARGARREN IKASKAIA

### IZTEGI – Vocabulario

axuri, bildotx	<i>cordero</i>	arro	<i>orgulloso</i>
oillasko	<i>pollo</i>	apal	<i>humilde</i>
aragi, okela	<i>carne</i>	aberats	<i>rico, adinerado</i>
arrai, arrain	<i>pescado</i>	txiro	<i>pobre</i>
arrautz	<i>huevo</i>	gizagajo	<i>cuitado</i>
gazta, gasna	<i>queso</i>	maltzur	<i>astuto, taimado</i>
aza	<i>berza, col</i>	ikasi	<i>aprender</i>
banabar, babarrun	<i>alubia</i>	irakasi	<i>enseñar</i>
lusagar	<i>patata</i>	erakusi	<i>mostrar</i>
legatz	<i>merluza</i>	ebaki	<i>cortar</i>
arrosel, bixigu	<i>besugo</i>	erabaki	<i>decidir</i>
gurin, urin	<i>mantequilla</i>	erabilli	<i>usar (hacer andar)</i>
bikain	<i>excelente</i>	oraintxe	<i>ahora mismo</i>
zirtzil	<i>pequeño, ruin</i>	goiz	<i>temprano</i>
txatxar	<i>malo, infimo</i>	berandu	<i>tarde</i>
txairo	<i>airoso</i>	ondoan, ondoren	<i>después de</i>
lerden, lirain	<i>esbelto</i>	gabe, bage	<i>sin</i>
zuur	<i>prudente</i>	urbil, gertu	<i>cerca</i>
garden	<i>limpio, puro</i>	urrun, urruti	<i>lejos</i>

### ADITZ-JOKOA – Conjugación

Presente del momento de verbos transitivos (sin auxiliar)

EUKI	ERAMAN	EKARRI	JAKIN	ESAN
daukat	daramat	dakart	dakit	diot
daukazu	daramazu	dakarzu	dakizu	diozu
dauka	darama	dakar	daki	dio
daukagu	daramagu	dakargu	dakigu	diogu 9.
daukazue	daramazue	dakarzue	dakizue	diozue
daukate	daramate	dakarte	dakite	diote

*Nota: En la conjugación TRANSITIVA, para el objeto plural se añade una "Z" o el infijo "ZKI":*

*dauzkat, dauzkazu (los tengo, los tienes) dakarzkit, dakarzkizu (los traigo, los traes); dazkigu o dakizkigu (los sabemos).*

*Ejemplos: arrautz auek zuentzat dakarzkigu; oillasko ederrak daramazkizu; aurten igaz baño babarrun txatxarragoak dauzkagu. Zertarako daukazue gazta oiek leioan?.*

*Las formas diot, diozu, etc. no reciben pluralizante.*

## 10<sup>a</sup>. LECCION

### INTERROGATIVOS

1.	NOR	ZER	NOIZ	NUN	NOLA
	Sus derivados:				
2.	iñor	ezer	iñoiz	iñun	inolaz
3.	iñorez	ezerez	iñoizez	iñunez	inolaez
4.	norbait nor-edo- nor	zerbait zer-edo- zer	noizbait noiz-edo- noiz	nunbait nun-edo- nun	nolabait nola-edo- ala
5.	edonor nornai	edozer zernai	edonoiz noiznai	edonun nunnai	edonola nolanai

**Notas:** 1) *NOR, ZER, etc. son interrogativos determinados.*

2) *Interrogativos indeterminados: ¿alguien? ¿algo? ¿alguna vez? ¿en algún sitio? ¿de algún modo? Necesitan de la negación "EZ" para expresar idea negativa: por ejemplo: ez dut iñor ikusi (no he visto a nadie); ez gara iñun obeki egongo (no estaremos mejor en ningún sitio).*

3) *Expresan negación en frases donde no haya verbo conjugado: nadie, nada, nunca, en ningún sitio, de ningún modo.*

4) *Expresan afirmación: alguien, algo, alguna vez, en algún sitio, de algún modo.*

5) *Expresan afirmación general: quienquiera, cualquier cosa, cuandoquiera, dondequiera, comoquiera.*

**ORDUAK (Las horas):** ordubata, ordubiak, iruak, lauak, bostak, seiak, zazpiak, zortziak, bederatzia, amarrak, amaikak, amabiak.

... eta laurdenak	(y cuarto) : ordubi ta laurdenak.
... eta erdiak	(y media) : amaika ta erdiak.
... laurden gutxi	(- cuarto) : bostak laurden gutxi.
... eta ...	(las ... y) : lauak eta ogeitabost.
... gutxi	(menos ...) : ordubata amar gutxi.

## IRAKURGAI

1. Nor bizi da etxe ortan? Or... Bengoa jauna. Eta beste ortan? Orkoak etorri-berriak dire. Eta emen, iñor bizi da? Bai, norbait bizi da, baño ez dakit nor. Ez, orain ez da iñor bizi. Nork daki ori? Ori... edonork!.
2. Zer dago mai gañean? Gazta bat. Ez dago ezer. Zer egin duzu gaur goizean? Belarra ebaki. Ezer ikasi duzu etxean? Ez, ezerez. Bai, zer-edo-zer ikasi dut, baño gutxi. Zer jango duzu? Edozer: berdin da.
3. Noiz egon ziñen mendi ortan? Joan dan udan. Ibili zara iñoiz itxasoan? Ez, iñoizez. Maiz joaten zerate Baiona-aldera? Noiz-edo-noiz joaten gara, baño ez askotan. Iñoiz ikusten dituzu mutil oiek? Bai, edonoiz ikusten ditut, etxe-ondoan bizi direlako.
4. Nun entzun duzu ori? Atzo entzun nuen, ondartzatik etortzean. Iñun saltzen ditute emen orrelako oilloak? Bai, edonun erosiko dituzu. Ez, emen ez ditute iñun saltzen.
5. Nork ikusi du? Nik ez, baño norbaitek ikusi du. Nork daki ori? Orain arte, iñork ez daki ori. Iñoiz egon zara erri ortan? Ez, iñoizez, baño noiz-edo-noiz joango naiz. Ikusi duzu etxe ori? Bai, orrelako etxeak edonun (nunnai) ikusten dire. Zer egin duzu or? NUN? Emen, begi gañean? Ezta ezer: ebaki txiki bat. Ezer saldu duzu? Ez, oraiño ezerez. Nola joango dire? Ez dakit, baño nola-edo-ala joango dire. Nor dabil or, ate-atzean? Nik ez dut iñor ikusten. Bai, norbait dabil.

\* \* \*

anka egin  
ederra egin, ederrak egin  
gogoan artu  
begitan artu  
txakurrenak esan  
esanak esan  
esan ta egin  
nork esan!  
gorriak ikusi  
bide onetik jakin  
bai polita dala!.

*escaparse  
hacer buena  
tomar en cuenta, considerar  
tomar ojeriza, tomar rabia  
decir perrerías, disparates  
lo dicho, dicho  
dicho y hecho  
¡quién iba a decirlo!  
pasar grandes apuros  
saber de buena tinta  
¡sí que es bonito! ¡qué bonito es!*

## IDAZKIZUN

1. (*Al dictado*) Atzo, gure aitaren eguna zelako, Iruña'n gelditu nintzen. Goizeko amaiketan Karmel'go elizara joan giñen Joxe ta biok, meza entzutera. Andik ateratzean, ain zuzen ere, Martin eta Tomas'ekin elkartu giñen: karrikan ibiltzeko eguraldi txarra eta otza zegoen eta "bar" batean sartu giñen. Ordubietan gutxi gorabera, etxerantz egin genuen. Amak esan zuen: "Gaur sukaldean jango dugu: su eder bat egin dut eta an bero-bero egongo gara". "Ori, ori" — esan genuen guziok, eta ara joan giñen. Gure etxea ez da aberatsa, baño orrelako egun andia zelako, bazkaria beste egunetan baño ederra goa izan zen. Azkenean amak gaztain eta intxaurrak ekarri zituen. Guretzat aurtengo lenbizikoak ziren, eta bai pozik jan genituela! Arratsaldean, berandu, lengusuak etorri ziren eta berekin "zine" batera joan giñen. 10.
2. (Ordu auek euskeraz ezarri) *Las 5 y cuarto. Las 8 y media. La 1 y diez. Las 12 menos cuarto. Las 6 menos cinco. Las 11 y media. Las 2 menos veinte. Las 4 y cuarto. Las 7 menos veinticinco. Las 10 y cinco.*
3. (*A traducir*) *¿Qué hora tienes? Las nueve y veinte. ¿No es más? No, yo tengo bien la hora; ¿qué hora es pues en el tuyo? El mío se ha parado a las seis. ¿Se ha hecho tarde para tí? No, todavía no. Entonces estudiaremos un poco más. Sí, hasta las diez menos cuarto. Vamos a aprender ésto y por hoy nada más. Mañana... más y mejor, según es costumbre decir.*

\* \* \*

- Martin laister datorrela entzun dut. Zuk, entzun duzu ezer?
- Bai; eta bide onetik dakit. Ez dago pozik an.
- Nork esan! Joan zenean, ongi pozik joan zen gizagajoa!
- Bai orixe! Batzuk emendik txiro-txiro joan, eta an laister aberats egiten zirela jakitean, ara joatea erabaki zuen.
- Esan ta egin! Iñori deus esan gabe, anka egin zuen emendik... Baño len bezain (bezin) txiro datorrela entzun dut. Eta an gorriak ikusi ondoan!
- Dana dala, gure lagun onena zen eta ni pozik nago, berriz gure artean ikusiko dugulako.

## AMAIKAGARREN IKASKAIA

### IZTEGI – Vocabulario

zaldi	<i>caballo</i>	adoretsu	<i>valiente</i>
beor	<i>yegua</i>	beldurti	<i>cobarde, miedoso</i>
asto	<i>burro, asno</i>	bizkor	<i>vivo, activo</i>
auntz	<i>cabra</i>	motel, geldi	<i>muerto, apagado</i>
antxume	<i>cabrito</i>	lasa, lasai	<i>holgado, tranquilo</i>
ari, ariko	<i>carnero</i>	larri, estu	<i>apurado</i>
egazti	<i>ave</i>	aditu	<i>entender, oir</i>
arrano	<i>águila</i>	ulertu	<i>comprender</i>
sai, futre	<i>buitre</i>	asmatu	<i>pensar, idear</i>
bele	<i>cuervo</i>	aztu	<i>olvidar</i>
uso	<i>paloma</i>	igarri	<i>adivinar, sospechar</i>
kafi, kabi	<i>nido</i>	ezagutu	<i>conocer</i>
arr	<i>macho</i>	galdetu	<i>preguntar</i>
eme	<i>hembra</i>	erantzun	<i>contestar</i>
adar	<i>cuerno</i>	asi	<i>empezar</i>
ego	<i>ala</i>	akitu, bukatu	<i>acabar, terminar</i>
atzapar	<i>garra</i>	billatu	<i>buscar</i>
moko	<i>pico</i>	aurkitu	<i>encontrar</i>

### ADITZ-JOKOA – Conjugación

#### Pasado de momento de verbos transitivos (sin auxiliar)

EUKI	ERAMAN	EKARRI	JAKIN	ESAN 9.
neuken	neraman	nekarren	nekien	nion
zeneuken	zeneraman	zenekarren	zenekien	zenion
zeuken	zeraman	zekarren	zekien	zion
geneuken	generaman	genekarren	genekien	genion
zeneuketan	zeneramaten	zenekarten	zenekiten	zenioten
zeuketan	zeramaten	zekarten	zekiten	zioten

#### PREFIJO VERBAL “BA”:

1. *Afirmativo (equivale a “ya”) delante de verbos conjugados sin auxiliar: ba noa, ba zenekien? ba zatorz?.*
2. *Condicional (equivale a “si”) delante del auxiliar: au ongi egiten ba-duzue, ixilik egoten ba-zerate.*

## 11<sup>a</sup>. LECCION

USTE-IZAN	(creer, suponer, pensar...)
BEAR-IZAN	(tener que, necesitar...)
NAI-IZAN	(querer, desear)

1. *Estos verbos se conjugan como “izan”, con auxiliar transitivo: emen egon nai dut; bukatu bear duzu.*
2. *El infinitivo que sigue a los verbos “tener que” y “querer”, precede por el contrario a “BEAR” y “NAI”.*
3. *Cuando al verbo “creer” en forma afirmativa sigue la conjunción “que”, ésta se traduce por el sufijo verbal “la”, y se invierte el orden de las dos oraciones. En forma negativa “que” se traduce por el sufijo verbal “nik” y no se invierte el orden.*
4. *En el futuro, en lugar de “uste-izango”, “bear-izango” y “nai-izango”, se dice generalmente “usteko”, “bearko” y “naiko”.*

### ADIBIDEZ (Por ejemplo)

- |   |   |
|---|---|
| 1. uste duzu?<br>zer uste zenuen?<br>uste-izan zuten<br>zenbat bear dituzu?<br>merkeagoa nai nuen         | ¿crees? ¿te parece?<br>¿qué creías?<br>creyeron<br>¿cuántos necesitas?<br>quería (yo) más barata          |
| 2. bereala erantzun bear<br>duzue<br>saldu bear-izan zituen<br>zer jan nai duzue?<br>ez dut deus artu nai | tenéis que contestar ense-<br>guida.<br>tuvo que venderlos<br>¿qué queréis comer?<br>no quiero tomar nada |
| 3. euria dakarrela uste dut<br>etorriko zirela uste nuen<br>ez nuen uste erri au ain<br>polita zenik      | creo que va a llover 11.<br>creía que habrían venido<br>no creía (yo) que este pueblo<br>era tan bonito   |
| 4. berriz egin bearko dute<br>joan naiko zuten<br>bukatu bearko dugu.                                     | tendrán que hacerlo de nuevo<br>hubieran querido ir<br>tendremos que acabar                               |

## IRAKURGAI

1. Gaur igandea zela uste nuen. Zer uste dute oiek, guk ez dugula berak bezin ongi ikasiko? Ez dut uste etzi etorriko naizenik. Beste au politagoa dala uste dut. Ez gatorzela usteko dute. Ez nuen iñoiz uste izango mutil ori orrelakoa zenik. Ez zuten uste ain goiz jaikiko giñenik. Beti uste izan dugu anai-arrebak ziñatela. Errezagoa zela uste zuten. Amak ez dakila uste du. Ez duzu uste laister ikasiko dugula?.
2. Ez duzu geiago nai? Ez dute nai. Nork nai du oraiño? Ez dut ainbeste nai. Gurekin etorri nai duzue? Kafi bat ikusi nai duzu? Nai ba-duzue, emen geldituko gara pixka batean. Ez genuen ori egin nai. Atzo ez zuen jan nai izan; gaur berriz pozik jan du. Neskatilla ori ezagutu nai ba-duzu, biar ordu ontan emen egongo da. Gosarian, zer artu nai duzue? Geienetan, edontzi bat esne artzen dugu: besterik ez.
3. Zer bear duzu orain? Deusez: ongi nago. Ulertu duzu? Bai, ongi ulertu dut orain eta ez dut aztu bear. Egur geiago bear duzue? Ba daukat emen oraiño. Noiz asi bear dugu? Datorren illaren zazpigarrenean asiko gara, Jaungoikoak nai ba-du. Ba zoaz? Bai, berandu da eta joan bear dut. Ba zenekien Tomas il zela? Ez, ez nekien: Noiz il zen ba? Etorriko da? Baietz esan zuen, baño amarrak dire eta ez dut uste etorriko danik. Joan egin bearko dugu. Ikusi gabe igarri nuen zer zegoen labean.

\* \* \*

naiago izan  
alferrik izan  
gauza izan  
esanekoa izan  
nere ustez  
antza danez, agiri danez  
atsegin aundiz  
ezagun da  
uts-utsik  
uts egin gabe  
gogoan izan (euki)

*querer más, preferir  
ser inútil, en balde  
ser capaz, valer para algo  
ser obediente  
a mi juicio, yo creo que...  
al parecer, según parece  
con mucho gusto  
ya se conoce, ya se ve  
puro, completamente vacío  
sin falta, sin faltar  
recordar*

## IDAZKIZUN

### 1. (*Al dictado*)

- Zer esan duzu?
- Euria asi dala esan dut.
- Bai, ikusten dut, eta otz onekin elurra ere laister izango dugu.
- Ezagun da negu-biotzean gaudela (gagozela): Otsaillean sartu gara, eta orain izaten dire emen otz aundienak.
- Gogoan duzu orain urte batzuk nolako otza egin zuen illontan?
- Nola ez? Illabete osoan euki genuen elurra karrikatan, eta piñu geienek galdu ziren otz gogor arekin.
- Igazkoa, aldiz, biguñ-biguña izan zen, baño geienetan txarra egiten du.
- Onen ondoren, Martxoarekin batera, udaberria elduko da. Udaberri gozo eta leguna. Orduan, mendi eta ibarrak, soro eta errekek, dan-dana argi ta alai ikusiko dugu.

### 2. (*Euskeraz erantzun*):

ZEREKIN egiten dire: gaztak? kafiak? ardoa? atek? 12.

NUN bizi izaten dire: arraiak? ardiak? arranoak? oilloak?

ZEIN dituzu naiago: arrautzak ala aragia? oillaskoa ala legatza? udareak ala marrubiak? mendia ala ondartzak? fagoak ala arcitzak?

Futrea ala belea da aundiago? Zaldia ala astoa bizkorrago? Fagoa ala gorostia lerdengo? Antxumea ala auntz zarra politago? Ardia ala txakurra adoretuago? Piñuen azala ala fagoena latzago? Guriña ala oziña gozoago?.

- ### 3. (*A traducir*)
- ¿Qué tenemos para comer? Primero, alubias rojas con berza, y luego carne. ¿Qué tomaste ayer en la cena? Casi lo he olvidado, pero creo que comimos huevos. ¿Qué tal es vuestra nueva criada? Es muy buena: humilde y activa. ¿Quieres llevar ésto a casa de mis primos? Ya lo creo! Con mucho gusto! ¿Qué crees tú, que es buen chico? Yo creo que sí. ¿Estaban las crías en el nido? No, cuando llegamos nosotros, estaba completamente vacío. ¿Qué hemos de hacer para no olvidarlo? Estudiarlo una y mil veces, hasta saberlo muy bien. ¿Vendrás sin falta? Sí.*



## AMABIGARREN IKASKAIA

### IZTEGI – Vocabulario

otso	<i>lobo</i>	alfer, nagi	<i>perezoso, vago</i>
artz	<i>oso</i>	maratz	<i>diligente</i>
azeri	<i>zorro</i>	epel	<i>tibio, templado</i>
basurde	<i>jabalí</i>	egoki	<i>adecuado</i>
erbi	<i>liebre</i>	aztun, pixu	<i>pesado</i>
suge, sube	<i>culebra</i>	zakar	<i>feo, sucio</i>
eper	<i>perdiz</i>	egosi	<i>cocer</i>
galeper	<i>codorniz</i>	erre	<i>asar, quemar</i>
txori	<i>pájaro</i>	irakin	<i>hervir</i>
zozo	<i>tordo</i>	estaldu	<i>tapar, cubrir</i>
biligarro	<i>malviz</i>	bota	<i>echar, arrojar</i>
papagorri	<i>petirrojo</i>	nastu	<i>mezclar</i>
xomorro	<i>insecto</i>	naiko	<i>bastante</i>
euli, uli	<i>mosca</i>	baita (re)	<i>también</i>
erle	<i>abeja</i>	ezta (re)	<i>tampoco</i>
erlamiñ	<i>avispa</i>	gaiñera	<i>además</i>
txiñurri	<i>hormiga</i>	nekez	<i>difícilmente</i>
bare	<i>limaco</i>	bada, ba	<i>pues</i>

### REPASO DE LA CONJUGACION TRANSITIVA

#### Notas

daukat	: <i>tengo</i>
neuken	: <i>tenía (yo)</i>
eukitzen dut	: <i>suelo tener</i>
eukitzen nuen	: <i>solía tener</i>
euki dut	: <i>he tenido</i>
euki nuen	: <i>tuve</i>
eukiko dut	: <i>tendré</i>
eukiko nuen	: <i>hubiera tenido</i>
erosten dut	: <i>suelo comprar</i>
erosten nuen	: <i>solía comprar</i>
erosi dut	: <i>he comprado</i>
erosi nuen	: <i>compré</i>
erosiko dut	: <i>compraré</i>
erosiko nuen	: <i>hubiera comprado</i>

1. *No se olvide que el sujeto de todo verbo transitivo debe llevar siempre una "k".*
2. *Cuando el objeto sea plural, se intercala el pluralizante "it" o el "zki" : ditut, neuzkien.*
3. *En la forma negativa poner primero la negación "ez", luego el auxiliar y por último el verbo: ez dut euki-ko, ez nituen erosi.*

## 12<sup>a</sup>. LECCION

### GERUNDIO Y PARTICIPIO

*EL GERUNDIO se expresa de tres formas:*

1. *Mediante sufijos añadidos al infinitivo:*  
TEN, TZEN (cuando el verbo está sólo, o relacionado con "estar" o "andar ocupado en algo").  
  
Z, AZ, EZ (para verbos relacionados simultáneamente con otra acción).  
  
TA, (R) IK (para verbos relacionados con otra acción posterior).
2. *Añadiendo el sufijo "la" a formas personales de verbos conjugados sin auxiliar.*
3. *Añadiendo los sufijos "Z, EZ, KA, AN, EAN" a verbos compuestos de "izan" o "egin", o cuando se quiere expresar una acción repetida.*

*EL PARTICIPIO se forma añadiendo al infinitivo los sufijos "TA (DA)" o "IK (RIK)", sobre todo el primero.*

#### ADIBIDEZ (Por ejemplo)

Izebari idazten nago	<i>Estoy escribiendo a la tía</i>
Zer zabiltz? Euliak iltzen?	<i>¿Qué andas? ¿Matando moscas?</i>
Beti irakurtzen ikusten dut	<i>Siempre lo veo leyendo</i>
Egurra errez egiten da sua	<i>Quemando leña se hace fuego</i>
Ola egonaz ez duzu ikasiko	<i>Estando así no lo aprenderás</i>
Agur esanez joan zen	<i>Se marchó diciendo "adiós"</i>
Ori egiñez zer irabazten duzu?	<i>¿Qué ganas haciendo éso?</i>
Bere lo-gelan sartuta bakarrik gelditu zen	<i>Metiéndose en su habitación se quedó sólo</i>
An zeozer artuta, Lizarra ra joan giñen	<i>Habiendo tomado algo allí, fuimos a Estella</i>
Burua makurturik, il egin zen	<i>Inclinando la cabeza murió</i>
Umea negarrez (farrez) dago	<i>El niño está llorando (riendo)</i>
Norbait ate-joka dabil	<i>Alguien anda llamando a la puerta</i>
Gero dantzan ibilli giñen	<i>Luego estuvimos bailando</i>
Gizon ori edanik dago	<i>Ese hombre está bebido</i>
Esne au egosirik dago?	<i>¿Está cocida esta leche?</i>

## IRAKURGAI

1. Nere ustez, neskatilla ori ez da egokia zuretzat. Len, azeri, otso eta basurdeak ugari izaten ziren gure mendietan, baño orain nekez ikusten dire. Elurra ezezik, kazkarabarra ere bota zuen. Etxe ederra daukate: lau lo-gela naiko aundi, jatoki bikain bat eta sukalde argi ta zabala.
2. Zu eldutzean, gaztañak erretzen gengozen (giñauden). Oiñak garbitzen dago, baño laister jetxiko da. Nere lengusuen etxe berria ikusten egon naiz. Ainbeste urte-ondoren, berriz bere erria ikusiaz poz aundia artu zuen. Bi eskuak uts-utsik erakusiaz, onela esan zuen: "Ikusten duzue? Ez daukat deus". Sagarra erditik ebakiaz, "au zuretzat eta beste au neretzat" esan zuen. Bere semea arturik, urrutira joan zen. Ume guziak batera zutituta, "Aita Gurea" esan zuten. Txakurrenak esanda, anka egin zuen. Ni txiki-txikia nintzela il ziren bi aitatxik. Malkorretan zebillēla erori zen. Jangelan ikasten-ari nintzela, bilingarro bat sartu zen leiotik. Esne pixka batekin nastuta nai dut. Ogi au geiegi erreta dago. Atzo nere lagun batzuk mendian lañotan galdurik, txarki eta larri ibilli ziren.

\* \* \*

farrez, (farreka)	<i>riendo</i>	ago-zabalka	<i>bostezando</i>
negarrez	<i>llorando</i>	saungaka	<i>ladrando</i>
beldurrez	<i>temiendo</i>	bulukaka	<i>empujando</i>
deiez (deika)	<i>llamando</i>	egazka	<i>volando</i>
naiez	<i>queriendo</i>	eztulka	<i>tosiendo</i>
ustez (ustean)	<i>creyendo</i>	mainguka	<i>cojeando</i>
<hr/>		galdezka	<i>preguntando</i>
ametsetan	<i>soñando</i>	igeska	<i>huyendo</i>
izketan (solasean)	<i>hablando</i>	txirristaka	<i>resbalando</i>
lanean	<i>trabajando</i>	joka	<i>pegando, llama-</i>
burrukan	<i>peleando</i>		<i>mando</i>
dantzan	<i>bailando</i>	otoika	<i>rogando</i>
euritan	<i>lloviendo</i>	oiuka	<i>gritando</i>
lotan	<i>durmiendo</i>	adarka, dalka	<i>corneando</i>
zorretan	<i>debiendo</i>	puzka	<i>soplando</i>
<hr/>		fixtuka	<i>silbando</i>
begira	<i>mirando</i>	txistuka	<i>escupiendo</i>
billa	<i>buscando</i>	ursinka, atijaka	<i>estornudando</i>
		furrutaka	<i>sorbido</i>

alako batean = *en ésto, en una de éstas (ésas)*  
 ... lakoan = *creyendo que*

## IDAZKIZUN

1. (*Al dictado*). Beñola, Pernando eta bere emaztea belar-soroan belarra ebakitzen zeuden (zegoen). Alako batean, uso eder bat eldu zen beren ondora, odoletan, egazka egin eziñik. Pernando 'k beingoan usoa artu eta belar-artean ezkutatu zuen. Andik laister, jaun bat agertu zen, izerditan, usoaren billa. Eta Pernando ikustean, galdezka asi zen urrutitik:

– “Uso bat ikusi duzue?”

– “Orain, amaikak” - erantzun zuen Pernando 'k <sup>oiuk.a</sup> ~~oiuk.a~~ Gizon arek, berriz, indar aundiagoz:

– “Ez duzue uso bat ikusi emen?”

– Oraino amaika ta erdiak ez dire baiñipein! Pernando 'k berriz ere.

Orduan, “gizon au ez dago ongi burutik” esanez, joan egin zen. Zortzi egun geroago, jaun arek karrikan aurkitu zuen Pernando eta farre egin naiaz, ba doa artez berarengana:

– “Zu, lagun; zer ordu da?”

– “Oso ona zegoen. Nere emazteak eta biok jan genuen”.

2. (*A traducir*). ¿Qué tenía ayer tu madre? La ví muy apurada. ¿Qué comísteis? Pan y queso: no tenían nada más. ¿Ya sabías que Manu se caso? Sí, ya me enteré (ya lo supe). ¿Cuándo los viste? Al llegar del mar: traían poco pescado. ¿No soléis ir ahora a Lizaso, como antes? No; antes teníamos allí una casita, pero ya la vendimos.
3. (*A traducir*). Tenéis que andar callando, porque el niño está durmiendo. Anduvimos llamando a la puerta y preguntando en todos los caseríos, en busca de huevos. Siempre lo veo hablando, o silbando, o bostezando, o mirando al cielo, pero trabajando... ¡nunca!. El tío está mejor, pero todavía anda cojeando. Empezó a las dos y estuvo toda la tarde lloviendo. Ya sé que estoy en deuda contigo hace mucho. ¡Cuidado que son malos esos chicos! Siempre andan peleando y pegándose. Ha estado tosiendo toda la noche. Mezclaré los huevos en la leche y lo tomaré sorbido. Bajamos a toda prisa, resbalando en la nieve.

## ORAIN-ARTE IKASIA BERRIZTATZEKO EGINKIZUNAK

1. (Completar las siguientes frases con las palabras del margen que correspondan):

Papagorria (*) txiki bat da. Arranoen (*) oso	:	usoa
sendoak izaten dire. Egazti apalena (*) dala	:	legatz
diote. Eperrak (*) egiten ditute beren kafiak.	:	igaliak
Esanak esan, gaurgero (*) gutxiago botako	:	gatz
dut janarietan. (*) baño geldiago ibiltzen da.	:	mokoa
(*) au bikaña dago: geiago artuko dut. Mamuruak barnean sartzen ba-dire, (*) usteldu	:	malkorretan
egiten dire.	:	barea
	:	atzaparrak
	:	txori

2. (Formar frases de comparativo empleando los siguientes términos):

Japón y China (aundi)	—	queso y fruta (naiago dut)
Enero y Julio (bero)	—	jabalí y jabalina (sendo)
leche y nieve (zuri)	—	trigo y maíz (ugari emen)
río y mar (sakon)	—	París y Madrid (iruiña 'tik urrun)

3. (Conjugar y traducir las siguientes locuciones en todas sus formas estudiadas hasta ahora):

Aitak erosi	Zuek joan bear izan.	Jon 'ek ez euki.
Guk ekarri	Nik etorri nai izan.	Zuk ez edan.

4. (En las siguientes frases, formar el gerundio que corresponda):  
 Burua atzerantz (volviendo), suge aundi bat ikusi zuen. Ori eziña da: zuk ori (soñando, en sueños) ikusi duzu. Joan dan igandean ikusi nuen, ni Aralar 'tik (viniendo). Lurrean (tumbándose), negarrez asi zen. Lagun gaiztoekin (andando), gaixotu egin ziren. Zuri (llamando) gaude Ebaren semeak.

5. (Esaera auekin zerbait asmatu eta idatzi):

— gutxi gora-bera	— gauza izan	— adibidez
— gero ta ...ago	— oi dan bezala	— dana dala
— agiri danez	— orrelako	— beiñola

## EJERCICIOS DE REPASO

6. (A traducir): *¿Quién ha andado aquí esta mañana? Nadie. Sí, alguien ha andado. Yo no he visto a nadie. ¿Vas a comprar otro nuevo? De ningún modo. ¿Habéis estado alguna vez en el bosque de Irati? No, nunca. ¿Cómo vais a llevar toda esa leña? No lo sé, pero de algún modo habrá que llevarla. ¿Vendrá todavía alguno más? Creo que no: la mayoría estamos aquí. ¿Lo harás todo? Sí, hacerlo sí: bien o mal, eso no lo sé. ¿Irá alguien de aquí? Alguien ya irá, pero muchos no. ¿Anduviste sólo? Sí, no ví a nadie en todo el día. ¿Qué ves aquí? Nada. ¿Y ahora? Ahora veo algo oscuro. ¿Porqué no ha venido Begoña? Porque en su casa tienen a alguien enfermo. ¿Comerás algo? Comer no, pero beber sí: hace mucho calor y he venido corriendo. ¿Qué has dicho? No he dicho nada. ¿Conoces a alguien en Etxarri? No, no conozco a nadie allí. ¿Cuándo iremos otra vez a Urbasa? Ya iremos alguna vez, si vivimos. ¿Fresas ahora? No las encontrarás en ningún sitio antes de Abril o Mayo. ¿Cuál prefieres? Cualquiera. ¿No tienes otro más barato? Sí, pero es muy feo.*

7. (Dan-dana euskeraz ezarri):

*(Cuando la madre vino de la iglesia) jaiki nintzen. Mendi geinak zuri-zuri dagoz oraiño, (porque la semana pasada nevó mucho). (Que este año nos quedaremos aquí, sin salir a ningún sitio) esan du aitak. Ez dut uste galduko garanik, (porque Antonio ha ido muchas veces a ese monte). Arrituta nago (porque vienes más tarde que otros días). (Que empezará después de Navidades) entzun dut. Ez zuen ikasi (porque era vago). (Tienes que taparlo bien), bestela xomorroak sartuko dire. Zer dauka gizon orrek? (Me parece que está bebido). Ez dakit zergatik, baño... (cuando ví ayer a Pello en la calle, se fué al otro lado). Ez dut ezer artuko (porque en casa he comido mucho hoy). Axuria erre bitartean, (pondremos unas patatas a coçer). Gaixorik egon ziren, (porque bebieron demasiado).*

## AMAIRUGARREN IKASKAIA

### IZTEGI – Vocabulario

abere	<i>animal, bestia</i>	kirets	<i>agrio</i>
		gozo, goxo	<i>dulce</i>
bildotx	<i>cordero</i>	sumin	<i>amargo</i>
katu	<i>gato</i>	eskuzabal	<i>generoso</i>
mando	<i>mulo</i>	zeken, zimur	<i>avaro, arrugado</i>
txerri, urde	<i>cerdo</i>	maite	<i>querido</i>
zezen	<i>toro</i>	laztan	<i>amadísimo, abrazo</i>
landare	<i>planta</i>	ikutu	<i>tocar</i>
arto	<i>maiz</i>	jo	<i>pegar, tocar un instrumento</i>
garagar	<i>cebada</i>	opill	<i>bollo</i>
gari	<i>trigo</i>	eman	<i>dar</i>
olo	<i>avena</i>	kendu	<i>quitar</i>
arbi	<i>nabo</i>	galdu	<i>perder</i>
illar	<i>arveja, guisante</i>	irabazi	<i>ganar</i>
salda	<i>caldo</i>	aurki, agian	<i>probablemente</i>
zuku	<i>sopa</i>	benetan	<i>de veras, en serio</i>
eltzeko	<i>cocido, potaje</i>	utsean, kittotan	<i>de balde, gratis</i>
zurrutada	<i>trago, sorbo</i>	aspaldi	<i>hace mucho tiempo</i>
agomen	<i>bocado</i>	oraintsu	<i>hace poco, recientemente</i>
koipe	<i>grasa</i>	“zera”	<i>eso, el asunto</i>
gurin	<i>manteca, mantequilla.</i>		

### SUFIJOS VERBALES

#### con infinitivos

AGATIK	<i>(aunque, a pesar de)</i>
EZKERO	<i>(sí, en caso de: sólo en futuro)</i>
TEAGATIK	<i>(por, para)</i>
ALA 13.	<i>(cuanto se pueda)</i>

#### con verbos conjugados

NEZ	<i>(según, como)</i>
NETIK	<i>(desde que)</i>
...N TOKIAN	<i>(donde)(1)</i>
...N EZKERO	<i>(ya que, puesto que)</i>
TA, ETA	<i>(pues, como: causa)</i>

### ADIBIDEZ (Por ejemplo)

Zailla izanagatik, ikasiko dugu. Ni, eguzkia (iruzkia) ikusiezkero, pozik egoten naiz. Semeari bizia emateagatik, amak berea galdu zuen. Zuk ekarri ala, guk jan egingo ditugu. Esaten denez, umeak zer ikusi, ura ikasi. Ezkondu zirenetik, ez dire onera etortzen. Zuek bizi zeraten tokian, emen baño euri geiago izaten da geienetan. Jakin nai duzuezkero, ona emen egi-egia. Joan azkar, berandu da-ta.

(1) Si se dice el lugar, éste sustituye a “TOKI”.

## 13ª. LECCION

**EL RELATIVO.**— *Se expresa añadiendo el sufijo “N” al verbo auxiliar o conjugado. Cuando éste acaba en “r” o “l”, se intercala una “e”, y si termina en “n”, nada.*

- Erosi dugun etxea = *La casa que hemos comprado*
- Or datorren gizon ori = *Ese hombre que viene ahí*
- Jan dituzun sagarrak = *Las manzanas que has comido*

**Notas.**— 1) *Como se ve en los anteriores ejemplos, se pone detrás del relativo lo que en español se llama antecedente, es decir, en orden inverso.*

2) *A veces, en lugar de esa palabra, se pone simplemente el artículo:*

- esan duzuna ez da egia = *lo que has dicho no es verdad.*
- zer da or daramazuna? = *¿qué es lo que llevas ahí?.*
- arrai geien ekarri dutenak = *los que más pesca han traído.*

3) *Añadiendo los sufijos “(r) IKO, TAKO, al infinitivo, se expresa asimismo una idea de relativo, pero sólo en tiempo pasado:*

- atzo ildako gizona = *el hombre muerto que murió* ayer.
- zuk ekarritakoa = *lo traído por tí (lo que tú trajiste)*
- galduriko ardia = *la oveja perdida (que se perdió).*

### DUDA E INTERROGACION

*La duda (“si” en castellano) se expresa poniendo “OTE” delante del verbo auxiliar o conjugado en las preguntas, y añadiendo el sufijo “N” en las respuestas:*

- ausiko ote da? = *si se romperá?*
- ongi ote dabil? = *si andará bien?*
- ez dakit etorriko ote diren = *no sé si vendrán.*

*Para expresar interrogación, basta con entonarlo según costumbre, aunque en algunas zonas ponen “al” (1) delante del verbo auxiliar o conjugado:*

- etorriko da biar? = *etorriko al da biar?*
- ongi zagozte? = *ongi al zagozte?*

“IA” *a ver si: ia or dauden (a ver si están ahí).*

·(1). *No debe confundirse con “aal” (poder): etorri al dire?. (han venido acaso?) etorri aal dire (pueden venir).*



## IRAKURGAI

1. Ama, gaur erosi duzun matsa ongi ondu gabe dago. Asko ikasi-agatik, ez duzue iñoiz naikoa jakingo. Ori al da zure osabak erositako txakur berria? Orain galdu duguna, beste batean irabaziko dugu. Emen gertatzen dana, beste errialde batzutan ere gertatzen da. Asko ta asko dire ori uste dutenak. Atzo ittota il zen mutil gaztea etxe ortan bizi zen. Noiz eka-  
rri bear duzu "zera", esan zenuen lagun ori, guk ezagutzeko? Andre orrek ez dauka egun on bat, semea galdu zuenetik. Nortzuk izan dire oraintsu zurekin emen egon diren umeak? Aspaldian bizi zerate etxe ontan? Egin zenetik, gu sartu giñen lenengo.
2. Lenagoko euskaldunak oraingoak baño sendoagoak ziren. Ardi-larruekin estaldurik ibiltzen ziren, eta gizonak ere ille luzea zeukaten, emakumeak bezala. Burrukan adoretu eta gogorrak ziren. Legor-aldekoak abere ta egaztiak iltzen zituten (zituzten) jateko; itxas-bazterrekoak berriz arraiak jaten zituten (zituzten). Ura bakarrik edaten zuten. Geienak diotenez, illargia zen beren orduko Jaungoikoa.
3. Naiago duzu beste au? Ez, ori utsean ere ez! Ain urrutitik nola etorri dire bada? Gurekin egoteagatik eta aitaxi jaijo zen baserria ikusteagatik. Bostak jo dute, ezta? Bai: uts-egin gabe bostetarako emen izango zirela esan zuten, eta ez dire etorri; nun sartu ote dire: Benetan ote da ezkontzen dala? Ori entzun dut nik ere. Zeren billa zabiltz? "Zera" ... gatza ez dut aurkitzen. Nun utzi ote dut? Alako batean, burua ere galduko dut.

\* \* \*

eguerdi, gauerdi  
arrezkero  
nola dan, nolakoa dan  
jo ta ke!  
...n bakoitzean  
...n guzietan  
...n artean  
...n bitartean  
zirt edo zart egin  
atzera edo aurrera egin }

*mediodía, medianoche*  
*desde entonces*  
*según y cómo*  
*¡dale que dale!*  
*cada vez que...*  
*siempre que...*  
*hasta que...*  
*mientras que...*  
*tomar una resolución con*  
*energía.*

## IDAZKIZUN

1. (*Al dictado*). Nork egin ditu zero-lurrak? Dan-dana Jaungoikoak asmatu eta egindakoa dugu. Lenbiziko egunean argia egin zuen. Bigarrenean zero urdiña. Irugarrenean itxaso eta lurrak ezarri zituen. Laugarrenean, eguzkia (iruzkia), illargia eta izarrak. Bosgarrenean, arraiak uretan eta txoriak eta gaiñerako egaztiak egazka. Seigarrenean, beste abere guziak, eta azkenik gizona. Adan izan zen. Auek danak Moises'en "Genesis" liburuan idatzirik daude (dagoz).
2. (*A traducir*). *Según se cree, en la luna no vive nadie. El humo que se hace al quemar la leña, suele salir por la chimenea. ¿Ya sabes quién fué el que inventó (ideó) eso? ¿Qué vivo es ese chico! Decir una vez es suficiente: enseguida lo comprende. Ya que habéis aprendido muy bien esta lección, pasado mañana empezaremos con la siguiente. Hoy voy a salir un poco más temprano, pues tengo que ir en busca de pan. Delante de la casa en donde yo nací, había entonces una fuente. Al parecer, ésos conocen poco este pueblo. Quiero saber si vais o no.*
3. (*Euskeraz erantzun*) Zer da otamen bat artzea? (*Comer algo a media mañana o a media tarde*). Nor da mutil ori? (*Un chico que conocimos el año pasado en Aralar*). Zer dire azeriak? (*Asntos animales que comen pollos, gallinas, etc.*). Nolakoa da erri ori? (*Muy bonito, como todos los que están a (en) orillas del mar*). Zer gertatu zen? (*No lo sé, pero los que fueron se volvieron sin ver nada*). Zer egingo dugu gaur? (*Hoy primero acabaremos lo que empezamos ayer*).

\* \* \*

- Egunon, jaunak! Zer jan nai duzue?
- Onek oillo-salda nai du lenengo, eta gero... aragi ona ba daukazue?
- Bai, oso ona eta samurra. Nola nai duzu ezartzea, erreta ala oliotan egosia?
- Erreta obeki... Nik berriz, banabarrak eta legatza artuko dut. Etxean ez ditut jaten eta, banabarra jan naiez nago.
- Berealaxe ekarriko dut!
- Ongi dago! Bitartean, ekarri ogia eta ardoa!

## AMALAUGARREN IKASKAIA

### IZTEGI – Vocabulario

pizti	<i>fiera, bicho</i>	mazal, maitagarri	<i>afable, amable</i>
eize, iizi	<i>caza</i>	anker, bortitz	<i>cruel, fiero</i>
N.— Txikienak zenbat urte ditu?

M.— Amabi baizik ez. Ori dala-ta, “umea” esaten diogu. Baño berari ez zaio atsegin guk “umea” esatea.

N.— Ikastolara joaten da?

M.— Bai, baño ez gogoz. Oso alferra da. Ikastea baño, naiago izaten du pelotan edo burrukan ibiltzea.

N.— Umeen burrukak aipatu dituzunean, bein liburu batean irakurri nuena etorri zait burura: irakasle batek bein batean bere ikasle txikiel esan ziena. “Beste lagun batekin aserretzen ba-zerate, eta burrukarako gogoia etortzen ba-zaizue, bestea jortzen asi baño lenago, “Aita gure” bat esan, eta... bestea zuek baño sendoagoa ta bizkorragoa ba-da, orduan amar “Aita gure”.

\* \* \*

2. Zoaz ortik. Zatorz azkar. Zagoz (zaude) ixilik. Adoretzu izan zaitetz. Ez zaitetz berandu etorri. Ez zaitetzte alferrak izan. Ez zaitetz larri egon. Kendu zaitetz nere ondotik. Ez zaitetz arritu. Ezkutatu zaitetzte atari-atzean. Jarri zaitetzte. Poztu zaitetz.

Ezari itzazu or. Ez ezazue ori esan. Erosi ezazu beste bat. Jan ezazu. Ez ezazu bialdu oraiño. Entzun ezazue au ongi. Kendu itzazue griña txar oiek.

Zaindu nazazu. Estaldu itzazu. Ez ezazu jo. Azaldu ezaidazu ori. Iratzartu itzazu. Astindu ezazu ongi. Igurtzi ezaidazu 23. bizkarra. Piztu ezazu sua. Itzali ezazu argia. Eman ezaizkiozu (emaizkiozu) aitari. Ez gaitzazu aztu. Ez ezaidazu galdu.

\* \* \*

luzaro, luzaroan  
goian bego (begoz)  
ala-bearrez  
bete-betea  
gogoz

*por mucho tiempo  
¡que en gloria esté! (... estén)  
casualmente  
plenamente, de lleno  
a gusto, con ganas*

## IDAZKIZUN

### 1. (Al dictado).

- Norena duzu eskutitz ori?
- Doneztebe´ko Maite´rena.
- Zer esaten dizu?
- Ostegun-gauean Iruña´ra etorriko dala eta Arrotxapera joateko bere billa.
- Luzarorako dator?.
- Bai, emen gelditzeko. Josten ongi ikasi nai du, eta ortara dator.
- Etxea ba dauka, emen egoteko?
- Bai; Bidaso-aldeetik lengusin bat dauka ezkondata, eta arengana joango da, asmentan.
- Esaoizu, igandean gugana etortzeko. Elkarrekin bazkalduko dugu, eta ondorean eleketa luzea egingo.
- Esango diot.

2. (A traducir) *Bájate de ahí. Vámonos pronto de aquí. No andes con esos chicos. Entrad y estad callando. Tráeme esa carta. No le hagás caso. Aquí tienes este hermoso libro: léelo despacio y guárdalo con cuidado. No les pegues por éso. Tráemelos luego, pues los necesito. Dáselo al perro. Alegraos en el Señor. Por tu nuevo libro, recibe nuestros aplausos más calurosos. No los rompas, dámelos. ¡Hala! levantaos, que ya es hora. Despiértame a las siete. Escoge el que quieras.*

3. (Euskeraz ezarri) *Vámonos junto al fuego, para calentar un poco los pies. No empecemos de nuevo a gritos. Haz lo que te digo y te curarás. Llévanos contigo el domingo. Voy lejos, querida, ¡pero no me olvides! Llévale estos libros cuanto antes. Diles que este año no iremos. Digámosle la verdad: es mejor. Ven a buscarme a las ocho. Echalos al fuego. Unámonos todos para hacer éso. Estad callando un momento. No te vayas aún. ¡Levántate y... vete! No andéis así, empujándoos, peleándoos y pegándoos: éso no está bien. Enséñanos esa canción. Dí lo que sepas (sabes). ¿Para qué los queremos? Vendámoslos. No hagás nada, hasta oírle al otro. ¡Defendamos nuestra lengua! Háznoslo bien. ¡Dales, Señor, la paz eterna!*

## OGEIGARREN IKASGAIA

### IZTEGI – Vocabulario

erlijio, uzkurtz	<i>religión</i>	ezti	<i>dulce, miel</i>
anima, gogo	<i>alma</i>	otzan	<i>manso</i>
kristau	<i>cristiano</i>	kutun	<i>predilecto</i>
deun, done	<i>santo</i>	etsai	<i>enemigo</i>
aingeru	<i>angel</i>	oso, bete	<i>completo, entero</i>
deabru	<i>diablo</i>	uts	<i>puro, simple</i>
apez	<i>sacerdote</i>	eskatu	<i>pedir</i>
gotzai	<i>obispo</i>	barkatu	<i>perdonar</i>
lekaide (fralle)	<i>fraile</i>	agindu	<i>prometer, mandar</i>
lekaime (moja)	<i>monja</i>	iraun	<i>durar, perseverar</i>
bataio	<i>bautismo</i>	itxaron	<i>esperar</i>
meza	<i>misa</i>	erditxi	<i>conseguir, alcanzar</i>
opari	<i>ofrenda</i>	samar	<i>algo, bastante</i>
esker	<i>gracia</i>	zear	<i>a través de</i>
zorian	<i>felicidad</i>	zeatz	<i>exacto</i>
zorigaitz	<i>desventura</i>	poliki	<i>bonitamente</i>
oben, pekatu	<i>pecado</i>	ziur	<i>seguro</i>
gurutze, kurutze	<i>crúz</i>	obeki	<i>mejor (más bien)</i>

### LOCUCIONES VERBALES

*Cierto número de acciones y sentimientos se expresan mediante locuciones compuestas, respectivamente, de “EGIN” y de “IZAN”*  
*Por ejemplo:*

farre	-egin	reir	maite	-izan	amar
dantza	-egin	bailar	lotsa	-izan	tener vergüenza
agur	-egin	saludar	gose	-izan	tener hambre
lo	-egin	dormir	damu	-izan	arrepentirse

*Notas.— 1) Algunas de estas locuciones son sustituidas por verbos derivados en “TU”: dantzatu, agurtu, maitatu, lotsatu, damutu...*

*2) Las locuciones compuestas de “EGIN” llevan siempre conjugación transitiva; las de “IZAN”, unas veces transitiva y otras intransitiva:*

maite DUT,      lotsa NAIZ      gose NAIZ      damu DUT...

## 20<sup>a</sup>. LECCION

**COMPOSICION DE PALABRAS.**—Es muy frecuente unir dos o más palabras para formar voces compuestas. Si al juntarse sufren alguna variación, se escriben en una sola palabra. Si no hay cambio alguno, es preferible enlazarlas mediante un guión, a no ser que formen voces compuestas de uso muy frecuente. Así:

gari	+	buru	galburu	bizkar-ezur	=	espinazo
burni	+	bide	burnibide	naste-borraste	=	mescolanza
begi	+	azal	betazal	aitor-entzule	=	confesor

**Notas.**— 1) Cuando el primero de los elementos que se unen acaba en “DI, GI, RI, N”, son frecuentes algunos cambios de letras, y si termina en “O, E”, éstas cambian en “A”:  
de ardi + zain = artzain (*pastor*); de begi + oker = betoker (*bizco*); de eri + gorri = elgorri (*sarampión*); de jan + ordu = jatordu (*hora de comer*); de baso + katu = basakatu (*gato montés*); de lore + toki = loretoki (*jardín*).

2) Al unirse dos sustantivos, hay muchas veces supresión de los sufijos “REN, KO, ZKO”:  
gaixo-etxe (*hospital*); ill-erri (*cementerio*); bei-esne (*leche de vaca*); sendiburu (*cabeza de familia*); artilla (ardi + illa = lana); etxabere (*animal doméstico*); atezain (*portero*); lurrikara (*terremoto*); itxa-sontzi (*barco*).

3) Otras veces hay elisión del copulativo “ETA”:  
zeru-lurak (*cielos y tierra*); salerosi (*comerciar*); artu-emanetan (*en relaciones*); goraberak (*vicisitudes*).

4) Es corriente la unión de sustantivo y adjetivo:  
buruaundi (*cabezota*); bideberri, bidezabal (*carretera*); sudurmotz (*chato*); begibakar (*tuerto*).

5) A veces se trata de simple repetición para dar mayor intensidad, o formar el superlativo:  
eder-ederra; tontor-tontorrean; amar-amarretan; goi-goien; uts-utsa.

6) Hay también muchas voces compuestas de tipo onomatopéyico:  
dinbi-danba (*a golpes*); zurru-murru (*rumor*); xiri-miri (*llovizna*); kili-kolo (*inseguro, vacilante*).



## ITZ ELKARTUAK

abesbatza	<i>orfeón</i>	gogo-jardun	<i>ejercicio espir.</i>
ugazama	<i>madrasta</i>	ikasbide	<i>ejemplo</i>
ankaluze	<i>zanquilargo</i>	ikastola	<i>escuela</i>
ago-safai	<i>paladar</i>	ikuseziña	<i>ojeriza, envidia</i>
aragi-jale	<i>carnívoro</i>	ill-berri	<i>necrología</i>
arbite	<i>calzada</i>	ipurtargi	<i>luciérnaga</i>
argi-indar	<i>luz eléct.</i>	itxasadar	<i>ría</i>
arrikatx	<i>carbón de p.</i>	itxasalde	<i>costa</i>
ago-bero	<i>exagerado</i>	itxasargi	<i>faro</i>
azkazal	<i>uña</i>	itxasgora	<i>pleamar</i>
atzekalde	<i>traseiro, culo</i>	itxas-kolkko	<i>bahía</i>
azkura	<i>picor, comezón</i>	jai-egun	<i>día de fiesta</i>
azpi-lan	<i>labor de zapa</i>	jaioterri	<i>lugar de nacim.</i>
basabere	<i>animal salvaje</i>	lagun-urko	<i>prójimo</i>
baseliza	<i>ermita</i>	lekaidetxe	<i>convento de fr.</i>
bizilagun	<i>cohabitante</i>	lur-eman	<i>enterrar</i>
begiluze	<i>curioso</i>	lur jo	<i>arruinarse</i>
belarriondoko	<i>bofetada</i>	lurrun-ontzi	<i>barco de vapor</i>
betaurreko	<i>anteojo, gafa</i>	luzapide	<i>prórroga</i>
betille	<i>pestaña</i>	mendizale	<i>montañero</i>
biotz-gogor	<i>cruel</i>	meza-emalle	<i>celebrante</i>
biotz-ikara	<i>emoción</i>	nagusi-orde	<i>subjefe</i>
bizitoki	<i>domicilio</i>	oben-bide	<i>escándalo</i>
burugogor	<i>terco, tonto</i>	oben-neke	<i>penitencia</i>
elur-busti	<i>agua-nieve</i>	odol-ixurtze	<i>hemorragia</i>
egon-eziña	<i>inquietud</i>	ongiez	<i>indispuesto</i>
eliz-dei	<i>proclama</i>	ormatxori	<i>gorrion</i>
eliz-gela	<i>sacristía</i>	otzikara	<i>escalofrío</i>
erbi-txakur	<i>perro lebré</i>	ur-etxe	<i>balneario</i>
erri-miñ	<i>nostalgia</i>	urtebetetze	<i>cumpleaños</i>
eskerron	<i>gratitud</i>	zorion-agur	<i>felicitación</i>
esan-naia	<i>significado</i>	zurigorri	<i>sonrosado</i>
esku-diru	<i>al contado</i>	zuzenbide	<i>dirección, señas</i>
esku-larru	<i>guante</i>	eztabaida	<i>discusión</i>
ezbear	<i>desgracia</i>	gizakume	<i>varón</i>

\* \* \*

kito, kitto *en paz (sin deudas)*  
 berariz *especialmente, expresamente, de intento*

## IDAZKIZUN

1. (*Al dictado*). Gizon txatxar eta lotsagabeko bat aitortzera joan zen bein-batean.

— “Jauna, —esan zion aitor-entzuleari — lenbiziko aginduan pekatu bat edo beste egin dut, baño bigarrenean ez eta kitto. Irugarrenean ere ba ditut pekatu batzuk, baño laugarrenean ez, eta kitto. Bosgarrenean bai, ta seigarrenean ez, eta kitto...” Eta orrela amar agindutan.

24. — “Entzuizu, adixkide, —esan zion apezak— zure azkeneko aitortzan apezak barkamena eman zizun?”—

— “Bai, jauna!” —

— “Ba... nik orain ez, eta kitto!” —

2. (Ondorengo itz auek euskeraz ezarri, eta gero erderara itzuli itzez-itz. Adibidez: *basurde, baso-urde, cerdo montés...*)

*jabalí, codorniz, dormitorio, sidra, vaso, patata, generoso, rui-señor, isla, este (oriente), confesor.*

3. (Ondorengo itz elkartuetan, bat ematen dugu: bigarrena bi-llatu zuk):

...toki	(estación)	...gura	(sueño)
...toki	(purgatorio)	...gura	(hambre)
...buru	(capital)	...kide	(compatriota)
...buru	(cruce, crucero)	...kide	(condiscípulo)
lurr...	(terremoto)	lepo...	(nuca)
ill...	(cuarto creciente)	...gorri	(desnudo)
il...	(mortaja)	...illeroko	(trimestral)

4. (*A traducir*). *¿Qué tal habéis dormido? Hoy mejor que ayer: hasta las siete no me he despertado. ¿Cómo no vinísteis ayer? Estuvimos en Noain, esperando a nuestra prima monja que venía de Roma. ¿Porqué no pedísteis más? No conocíamos a nadie allí, y teníamos vergüenza de pedir (para pedir) algo. ¿Ya te enteraste de (ya supiste) lo que pasó en esa casa? Sí; fué una gran desgracia, sobre todo para los padres. A mí también me dió mucha pena, porque le quería mucho. ¿Dónde le has visto? Esta mañana en misa: me ha saludado con la cabeza. ¿No quieres más? Ahora no; luego, si tengo hambre, ya tomaré un poco más.*

## OGEITABATGARREN IKASGAIA

### IZTEGI – Vocabulario

tresna	<i>instrumento</i>	itsu, itxu	<i>ciego</i>
aizto, laban	<i>cuchillo</i>	sor, sorgor	<i>sordo</i>
iltze	<i>clavo</i>	tetel	<i>tartamudo</i>
malluka	<i>martillo</i>	konkor	<i>jobado</i>
kate	<i>cadena</i>	mutu, muttu	<i>mudo</i>
ubal, ugal	<i>correa</i>	maiki, maingu	<i>cojo</i>
aitzur	<i>azada</i>	oitu	<i>acostumbrarse</i>
golde	<i>arado</i>	aldatu	<i>cambiar</i>
igitai	<i>hoz</i>	jaso	<i>levantar</i>
sega	<i>guadaña</i>	bota	<i>tirar, arrojar</i>
bae, bai	<i>cedazo</i>	-erazi, -azi	} <i>hacer hacer</i> 23.
aizkora	<i>hacha</i>	eragin	
gurdi	<i>carro</i>	usai, urrin	<i>olor</i>
txirringa	<i>rueda</i>	margo	<i>color</i>
berebil	<i>automóvil</i>	antz	<i>semejanza</i>
egazkin	<i>avión</i>	irudi	<i>imagen</i>
bultzi	<i>tren</i>	itxura	<i>tipo, facha</i>
izkillu	<i>arma</i>	ezaugarri	<i>señal</i>

### ADITZ-JOKOA – Conjugación

#### MODO SUBJUNTIVO

Auxiliar intransitivo (NOR)			Auxiliar transitivo (NORK)		
PRESENTE		PASADO	PRESENTE		PASADO
ni	nadin	nendin	nik	dezadan	nezan
zu	zaitezen	zintezzen	zuk	dezazun	zenezan
bera	dadin	zedin	berak	dezan	zezan
gu	gaitezen	gintezzen	guk	dezagun	genezan
zuek	zaitezten	zintezten	zuek	dezazuten	zenezaten
aiek	ditezen	zitezzen	aiek	dezaten	zezaten

## 21<sup>a</sup>. LECCION

### NOTAS SOBRE EL EMPLEO DEL MODO SUBJUNTIVO

- 1) *Las formas verbales que figuran en el cuadro anterior corresponden, tal como están, al subjuntivo castellano precedido de "PARA QUE":*

pozik egon zaitezzen; ixilik egon zedin (*intransitivo*)  
gure etxea ikusi dezazuten; ekarri zezaten (*transitivo*)

- 2) *Para el subjuntivo precedido de "que" o "cuando" hay que añadir los sufijos "la" y "nean" respectivamente:*

zintzo ibilli zaitezela	=	que andéis formales
geldi egon nendila	=	que estuviese (yo) quieto
egurra txikitu dezagula	=	que partamos la leña
etxera joan gaitezenean	=	cuando vayamos a casa
dana egin dezazunean	=	cuando hagamos todo

- 3) *En la conjugación transitiva se intercala, como siempre, el pluralizante "it" cuando los objetos son varios:*

umetxoak maite ditzagula	=	que amemos a los niños
eskuak garbitu ditzazula	=	que limpiéis las manos
liburuak irakurri zenitzaten	=	que leyeseis los libros

- 4) *Es mucho más frecuente sustituir las formas verbales de subjuntivo por otras más sencillas, sin auxiliar, aunque por tanto menos expresivas:*

Subj. precedido de "para que"	=	infin. + TEKO, TZEKO
"          "          "que"(1)"	=	"          " + TEKO, TZEKO
"          "          "cuando"	=	"          " + TEAN, TZEAN

mutil aundia egin zaitezzen (egiteko)  
etxera laister joan zaitezela (joateko)  
Iruña ra berriz joan nadinean (joatean)

- 5) *Otros casos:*

Subj. precedido de "aunque"	=	infinitivo + AGATIK
"          "          "hasta que"	=	"          " + ARTE

bultzi au galduagatik (aunque pierda este tren)  
Ongi ikasiarte (hasta que lo aprenda bien)

- (1) "TEA" o "TZA", cuando el verbo principal sea "querer".

## IRAKURGAI

1. Udaberrian gaude (gagoz), bete-betean egon ere. Eguzki-argiak, zugaitzen ostu berriak, txorien txio-txio gozoak eta umeen jolasak pozez betetzen ditute (dituzte) leku guziak. Negu otz eta beltza joan zen. Landara ederrak sortu dire nunnai. Txoriak batetik bestera poliki dabiltz egazka, kafian dauden umeentzat janari-billa. Maiatzako goizalde otz samar batean igo zaitzete mendi-tontor batera eta an agertuko zaitzue begien aurrean zabal-zabalik gure Erri onen edertasuna!
2. Gure baserritarrak oraingo tresna berriekin oitu ditezten. Lau edo bost dakarzkizut, nai duzuna aukeratu dezazun. Berebilla lengoa da, baño itxura berria artu dezan, margo biziagoa eman diogu. Zorion aundi ori al bait azkarren iritxi dezagun, bai guretzat eta bai gure erriarentzat. Gure biotzetik gorrotoa eta griña txar guziak bota ditzagun.
3. Amak esan dit, mesedez, malluka au prestatu dezaiguzula. Ubal edo kate batekin lotuta eraman ditzala agindu dute. Emen ezarriko ditugu, obeki ikusi ditezten. Ezaugarri bat ezarriko diegu, gureak zeintzuk diren jakin dezagun. Berebilla erosteko asmoa izan dezazuenean, esaidazue, nik lagunduko dizuet-eta. Esaiezu tresna guziak gurdi-gañean ezarri ditzatela: nik eramango dizkiet (ditiet).

\* \* \*

errixta egin	<i>reprender</i>	iges egin	<i>huir</i>
alde egin	<i>marcharse</i>	kalte egin	<i>perjudicar</i>
amets egin	<i>soñar</i>	irrixt egin	<i>resbalar</i>
zaunka egin	<i>ladrar</i>	negar egin	<i>llorar</i>
lan egin	<i>trabajar</i>	oiu egin	<i>gritar</i>
itz egin	<i>hablar</i>	fixtu egin	<i>silbar</i>
dei egin	<i>llamar</i>	uts egin	<i>faltar, errar</i>
euria egin	<i>llover</i>	zintz egin	<i>sonarse (nariz)</i>
agiri izan	<i>verse, aparecer</i>	oroit izan	<i>recordar</i>
ajola izan	<i>preocuparse</i>	gorroto izan	<i>odiar</i>
atsegin izan	<i>gustar, agradar</i>	balio izan	<i>valer (importe)</i>
erruki izan	<i>compadecer</i>	opa izan	<i>desear</i>

## IDAZKIZUN

1. (*Al dictado*). Egun batzuk Salamanca'n eman-da, ez zuela naikoa irabazten-eta, andik anka egitea erabaki zuen nere nagusiak. Uritik ateratzean, zubi eder batera iritxi giñen. Sarreran, arrizko zezen bat zegoen. Itsuak agindu zidan urretatzeko, eta ara joan nintzanean ola esan zidan: —“Lázaro, ezarri ezazu belarria zezen orrengana, eta barruan zalaparta aundia entzungo duzu”— Nik ala egin nuen, egia zelakoan. Burua arri-ondoan neukala itsua oartu zenean, eskuarekin berealdiko belarriondokoa eman zidan. Iru egun eta geiagoko oñazea izan nuen. Itsu maltzur arrek onela esan zidan: —“Zozo alaina! Ikasi ezazu: itsu-aurrekoak deabruak baño pixka bat geiago jakin bear du” — Eta farre egin zuen gogoz. (“Tormes 'ko itsumutilla”).

2. (Euskeraz ezarri). *Para que estén contentos. Para que no se pierdan, Que no se diga. Que andeis bien. Que os aproveche. Que vivan en paz. Que no te alejes de nosotros. Cuando vayais allá. Cuando haga menos frío. Cuando terminéis eso. Cuando aprendamos bien esto. Cuando lo veas otra vez.*

*Ya os dije que no viniérais hasta el lunes. Ordenaron que fuese clavado en una cruz. Nos contaba (decía) unos cuentos para que anduviésemos más de prisa. Le llevaremos con nosotros, para que olvide en unos días sus aflicciones. Para que nos acerquemos con corazón limpio a la mesa del Señor. Para que perseveréis firmes (fieles) en vuestras ideas. Diles que vengan sin falta.*

3. (Euskeraz ezarri). *Mira, allí aparecen: ¡ya era hora! He faltado dos o tres días en todo el año. No me importa: ya tengo otro. Yo hablaré con ella y lo arreglaré. Me reprendió porque no quería comer. Te deseo que pases un buen día. No te oye: grítale. ¿En qué trabaja tu padre? No me gusta la grasa. ¿Cuánto valen estos guisantes? Ladra mucho, pero no es malo. Se resbaló en una piel de manzana que había en el suelo. Eso es necesario para que se alejen de los malos caminos. Llovió mucho.*

## OGEITABIGARREN IKASGAIA

### IZTEGI – Vocabulario

soñeko	<i>vestido</i>	trebe	<i>hábil</i>
atorra	<i>camisa</i>	baldar, trakets	<i>torpe</i>
xaka	<i>chaqueta</i>	kaxkar	<i>menguado</i>
praka	<i>pantalón</i>	txukun	<i>limpio, aseado</i>
gona	<i>falda, saya</i>	txurizka	<i>pálido</i>
mantal	<i>delantal</i>	margul	<i>deshicolorido</i>
alki, aulki	<i>asiento, silla</i>	eten	<i>romper, soltar</i>
kutxa	<i>caja, cofre</i>	xeatu	<i>triturar</i>
kaiola	<i>jaula</i>	marildu	<i>ajar, ajarse</i>
saski	<i>cesta</i>	toleztu	<i>doblar, plegar</i>
pertz	<i>caldera</i>	miezkatu	<i>lamer, chupar</i>
zorro	<i>saco, bolso</i>	marraskatu	<i>roer</i>
oial	<i>pañó</i>	diru	<i>dinero</i>
zapi	<i>trapo</i>	balio	<i>valor, mérito</i>
ari	<i>hilo</i>	salneurri	<i>precio</i>
buraizeak	<i>tijeras</i>	laurleko	<i>peseta</i>
jostorraz	<i>aguja</i>	ogerleko	<i>duro (5 Ptas.)</i>
orraz	<i>alfiler</i>	eskupeko	<i>propina</i>

### ADITZ-JOKOA – Conjugación

#### MODO CONDICIONAL: Intransitivo

	(1)	(2)
ni	ba-nintz	nintzake
zu	ba-ziñe	ziñake
bera	ba-litz	litzake
gu	ba-giñe	giñake
zuek	ba-ziñate	ziñakete
aiek	ba-lire	lirake

*De estas dos formas, la 1ª expresa una condición (por eso va siempre precedida de “ba” = si). La 2ª expresa una acción posible, que depende de la primera:*

**Andoni ikustera joango ba-ziñate, asko poztuko litzake.**  
*Si fuérais a ver a Antonio, se alegraría mucho.*

## 22<sup>a</sup>. LECCION

### NOTAS SOBRE EL USO DEL MODO CONDICIONAL

- 1) *El auxiliar que expresa la CONDICION (ba-nintz)... puede ir precedido de un verbo en forma de futuro (joango, etorriko, eroriko...) o en forma de infinitivo (joan, etorri, erori...).*

*En el primer caso, la condición se refiere a tiempo futuro, y en segundo a tiempo pasado:*

etorriko ba-ziñe = *si vinieras o vinieses*  
etorri ba-ziñe = *si hubieras (o hubieses) venido*

- 2) *El auxiliar que expresa la acción posible (nintzake...) lleva siempre su verbo en forma de futuro (egongo, ibilliko, ilko...):*

obeki ibilliko ziñake = *andarías mejor*  
obeki ibilliko ziñen = *hubieras (habrías o hubieses) andado mejor.*

- 3) *Esta última forma (acción posible) la empleamos también cuando el llamado Potencial Simple en castellano no es condicional, sino afirmativo:*

aurten gurekin etorriko zela esan zuen Antonék.  
*dijo Antón que este año vendría con nosotros.*

- 4) *Con el verbo "IZAN" o locuciones compuestas de IZAN es frecuente suprimir su forma de futuro "Izango":*

aberatsa (izango) ba-ziñe = *si fueras rico*  
orrela bizi (izango) ba-giñe beti = *si viviéramos siempre así.*

- 5) *Cuando la condición esté en forma negativa, no hay que invertir el orden del verbo y auxiliar:*

ilko ez ba-giñe = *si no muriésemos*  
orren gaiztoak ez ba-ziñate = *si no fuéseis tan malos.*

*Nota: En algunas zonas, para expresar la condición, además de la partícula "ba", se acostumbra poner antes "baldin": aberatsa baldin ba-ziñe...*



## IRAKURGAI

1. Ederrak dire gure mendiak: eder, sendo eta iraunkorrak. Zaararak izanagatik, gazte-antza daukate. Beti daude itxura berdintzuan. Gu, gizonok, aldatu egiten gara; mendiak, ez. Mendiak ez dire aldakor.

Bai, ederrak eta maitagarriak dire gure mendiak. An daude (dagoz) aizerik osasuntsuenak; an usai gozozko landareak; an iturririk garbienak; an, zoragarri abesten duten txoriak. Eguzkiaren kutunak dire gure mendiak; goizean-goiz, aientzat izaten du bere lendabiziko argia; eta illunabarrean ere, menditontorrentzat izaten da eguzkiaren (iruzkiaren) azken-agur biguña.

Nik ere maite-maite ditut gure mendiok. Eta ez bakarrik eder, iraunkor eta gureak direlako, baita geiago, kristau naizen-ezgeroz, goian gurutzea daukatelako.

2. Pozik joango nintzake zurekin, ama etxera etorriko ba-litz. Asko eta asko etorriko lirake andik, lotsa ez ba-lire. Obeki biziko giñake guziok, ain gaizto ez ba-giñe. Pozik geldituko nintzake emen, baño joan bear dut. Igandean gurekin etorri ba-ziñe, obeki ibilliko ziñen. Joango nintzake zuekin, baño... urrutiegi dago neretzat. Esan nizun atzo, gaur beranduago etorriko nintzela. Iñaki k esan zuen, uda ontan gurekin etorriko zela.
3. Ain sakona ez ba-litz, sartuko nintzake erreka ortan. Guda (gerra) etorri ez ba-litz, ez ziren Ameriketara joango. Itz-eman zigun aurten Aralar era joango giñela. Ain berandu izan ez ba-litz, egongo giñen pixka bat geiago. Gure aita il ez ba-litz, ez nintzen ni ain gazterik lanean asiko. Lenago jaitxi ba-ziñe, ikusiko zenuen. Ai, ori egia ba-litz!

\* \* \*

arri ta zur gelditu  
atzekoz aurrera  
azpiz gora  
aurrez-aurre  
esan bearrik ez  
ortaz gañera  
su ta gar  
zalapartaka

*quedarse pasmado, extrañado  
al revés, de atrás adelante  
al revés, de abajo arriba  
frente a frente  
ni qué decir  
además de eso  
con todo entusiasmo  
atropelladamente*

## IDAZKIZUN

1. (*Al dictado*). Afrikatarrak diotenez, Jaungoikoak beltza sortu zuen Adan. Gero, bakarrik gaizki zegoela-ta, laguna eman zion: Eba. Au ere, Adan'en saietsetik atera zuenez, beltza izan zen. Ondorean, lenbiziko andre-gizon aiek bi seme izan zituten (zituzten): Kain eta Abel. Eta Kain'ek, gizatxarra zen-ta, bere anai otzan Abel il zuen. Orduan Jaungoikoa oso asarre agertu zakion (zitzaion) Kain'i, onela esanez: — "Kain, Kain! Nun duzu Abel zure anaia?" —Eta Kain, Jaungoikoaren aurpegi aserrea ikusirik, bildurraren bildurrez, zuri-zuri gelditu zen. Ori dala-ta, gu zuriok Kain'en ondorengoak garala diote afrikatarrak.
  
2. (Euskeraz ezarri). *¿Irías sólo y de noche? Mejor viviríamos entonces. ¿Qué pasaría luego?; Si no hubiesen sido tan vagos...! ¿Si anduviesen como hace falta...! Si hubiérais estado callando. Si no fuese yo tan tonto. ¿Si no fueras tan malo...! Si se cayera esa piedra. Si no hubiese tantas cuevas. ¿A dónde irías mañana, si fuese día de fiesta? No hubiese pasado eso, si hubiérais estado en casa. Se hubieran puesto muy contentos, si todo el dinero hubiera sido para ellos. Si hubiese vivido mi difunto padre (el que era mi padre), ¿qué contento hubiese estado viendo esta fiesta!*
  
3. (*Traducir las siguientes formas verbales*):

*si viniesen  
 no hubiésemos estado  
 habrían ido  
 si hubiera caído  
 ¿vendríais?  
 ¿hubiérais venido?  
 ya iríamos  
 no hubiéramos ido  
 no estarían  
 si se supiese  
 se hubieran roto  
 si se mandase éso  
 si surgiera*

*si hubiesen venido ellos  
 yo no hubiera ido  
 si nos acostumbrásemos  
 se hubieran perdido  
 si se rompiese  
 nos hubiéramos mojado  
 si se hubiese curado  
 si hubieras venido  
 si hubiésemos tenido hambre  
 no se hubiera enfermado  
 si os hubiéseis quitado  
 si nos hubiésemos despertado  
 ya se hubiera visto*

## OGEITAIRUGARREN IKASGAIA

### IZTEGI -- Vocabulario

oitura	<i>costumbre</i>	ausarti	<i>atrevido</i>
lege	<i>ley</i>	moko-xuri	<i>melindroso</i>
eskubide	<i>derecho</i>	arrotz	<i>extranjero</i>
baimen	<i>permiso</i>	jator	<i>castizo</i>
egite	<i>acto, acción</i>	azken	<i>último</i>
kezka	<i>preocupación</i>	lanpetu	<i>atareado</i>
gizarte	<i>sociedad</i>	ikertu	<i>examinar</i>
laterri	<i>estado</i>	aztertu	<i>registrar</i>
aberri	<i>patria</i>	menderatu	<i>dominar</i>
enda	<i>raza, casta</i>	uxatu	<i>espaniar</i>
batzar	<i>junta, asamblea</i>	zaindu	<i>vigilar, guardar</i>
bazkun	<i>sociedad</i>	galazi	<i>impedir</i>
gai	<i>materia, asunto</i>	era	<i>modo, manera</i>
arazo	<i>ocupación</i>	aldi, sasoi	<i>tiempo, época</i>
atseden	<i>descanso</i>	asti, beta	<i>tiempo libre</i>
opor	<i>vacación</i>	mota	<i>clase, especie</i>
epe	<i>plazo</i>	adin	<i>edad</i>
aitzaki	<i>pretexto</i>	izen, abizen	<i>nombre, apellido</i>

### MODO CONDICIONAL: Auxiliar transitivo

nik	ba-nu	nuke	
zuk	ba-zenu	zenuke	2. <sup>a</sup> forma
berak	ba-lu	luke	
guk	ba-genu	genuke	acción posible
zuek	ba-zenute	zenukete	
aiek	ba-lute	lukete	

“EUKI” y “JAKIN” se usan sin auxiliar en la 1.<sup>a</sup> forma, para tiempo futuro, así:

ba-neuke	= si tuviera (yo)	ba-neki	= si supiera (yo)
ba-zeneuke	= si tuvieras	ba-zeneki	= si supieras
ba-leuke	= si tuviera (él)	ba-leki	= si supiera (él)
ba-geneuke	= si tuviéramos	ba-geneki	= si supiéramos
ba-zeneukete	= si tuviérais	ba-zenekite	= si supiérais
ba-leukete	= si tuvieran	ba-lekite	= si supieran

## 23<sup>a</sup>. LECCION

### FORMAS VERBALES, CON RECEPTOR, DEL MODO CONDI- CIONAL (NOR, NORI)

#### 1. Intransitivo: Precedido de "ba" en la 1<sup>a</sup> forma; sin ella en la 2<sup>a</sup>.

	él, ella, ello		ellos, ellas
neri	litzakit 26.	litzazkit	(me, se me)
zuri	litzakizu	litzazkizu	(te, se te)
berari	litzakio	litzazkio	(le, se le)
guri	litzakigu	litzazkigu	(nos, se nos)
zuei	litzakizue	litzazkizue	(os, se os)
aiei	litzakie	litzazkie	(les, se les)

eroriko ba-litza (z) kigu = si se nos cayera (n)  
 erori ba-litza (z) kigu = si se nos hubiera (n) caído  
 eroriko litzazkigu = se nos caerían

#### 2. Transitivo: (Objetivo receptiva) ZER NORI NORK.

(Obsérvese que la "u" final de la forma verbal, se convierte en "i" al añadirle el pluralizante o el receptivo). 27.

nik	ba-ni...	(neri)	IT, IDA	Sustituir en cada caso los puntos por las letras mayúsculas que se indican para los distintos receptores.
zuk	ba-zeni...	(zuri)	ZU	
berak	ba-li...	(berari)	O	
guk	ba-geni...	(guri)	GU	
zuek	ba-zeni...	(zuei)	ZUE+te	
aiek	ba-li...	(aiei)	E + te	
<i>Intercalar siempre "IT" o "ZKI" cuando el objeto sea plural.</i>				
nik	ni(zki)...	(neri)	IT, IDA	Ejemplo: él a nos.
zuk	zeni(zki)...	(zuri)	ZU	
berak	li(zki)...	(berari)		
guk	geni(zki)...	(guri)	GU	
zuek	zeni(zki)...	(zuei)	ZUE+te	
aiek	li(zki)...	(aiei)	E + te	
				ekarriko ba-li(zki)gu ekarri ba-li(zki)gu ekarriko li(zki)gu

### SUFIJO VERBAL "N" CON INTERROGATIVOS EN FRASE SUBORDINADA

Quando un interrogativo se halla en una frase subordinada a otra acción u oración principal, el verbo de aquél lleva siempre el sufijo "n": Por ejemplo:

Ez dakit nor dan. Ba dakizu zer esan digun.  
 Esaiozu nun bízi zeraten. Ba-geneki noiz ilko garan...!

## IRAKURGAI

1. Bein batean, erriz-erri ibiltzen zen lapur txatxar bat aitortzera joan zen. Gezur eta abar, bere barne zikiña azaldu bitartean, apezari erlojua kendu zion sakeletik poliki-poliki.  
Batetik bestera, ara ta onera, erriz-erri ibilliaz bizi zela esan zionean apezari, onek, itxura txarra arturik, galdera au egin zion:

- “Ez duzu deus ostu?”.
- “Bai, jauna: erloju bat”.
- “Ba, jabeari itzuli bear diozu, bestela ez dizut asolbiziorik emango”.
- “Jauna, –esan zion lapurrak– nai al duzu zurezt nere zor ori?”.
- “Ez, nik ez, –esan zion apezak; –emaiozu jabeari”.
- “Eta jabeak nai ez ba-du?”.
- “Orduan gorde ezazu zureztat”.

Eta gizon txatxar arek, esker ugariak eman ez, alde egin zuen.

2. Nai izan ba-nu, joango nintzake. Nai izan ba-lute, ikasiko luke. Geiago bear ba-zenu, eskatu ezaidazu. Zuk nai ez ba-zenu emaiozu zure aitari. Saldu nai ba-zenute, guk erosiko genuke. Gukin egon nai izan ba-lu, ba zekien nun bizi garan. Txikitan ikasi ez ba-zenute, ez-jakin gizagajo batzuk izango ziñaten. Bear izan ba-nu, nork emango zidan olako diru pilla?.
3. An ikusiko ba-zenu, esaiozu artu nuela bere eskutitza, eta laister erantzungo diodala. Beste bide ori artu ba-genu, azkarago elduko giñela uste dut. Eta zer esango nion nik, zu nor zaran galdetu ba-lit (ba-lida)? Zor didana emango ba-lit, bazkari eder bat egingo genuke. Gure amak nundik gabiltzen ikusiko ba-lu, ikaraz ilko litzake. Ori jakin ba-nu, ez nion deus esango. Eguraldi ona egingo ba-lu, egun ona emango genuke. Biar arte utziko ba-zenida, gaur gauean irakurriko nuke, eta biar ekarriko nizuke berriz. Benetan maite ba-lu, ez lioke ainbeste negar eragingo. Emen, esku-artean ba-nuke, ez dakit zer egingo nion.

## IDAZKIZUN

1. (*Al dictado*) Bein batean, beste askotan bezala, ondarrutarrak itxasora atera ziren oso eguraldi garbi ta onarekin: baño arratsalderako zero guzia illundu zen, eta aizea ta euria asi ziren. Ontziak ez ziren agiri, eta olakoetan egiten danez, erriko gizon ta emakume danak, estu eta larri, ba zoazten batzuk eliz nagusira, beste batzuk kaialdera, eta Antigua'ko baselizara norbait edo beste. Eta emen asten da gertakizun arrigarria. Antigua'ko Ama garbi eta ona ez zegoen bere tokian! Arri ta zur atera ziren ara joa ziren emakumeak: elizaiñak esan zien, goizean argi-ontzia jarri zuenean, an zegoela Andra Mari, beti bezain eder eta gozoa, eta ez zekiela deus geiago. Galdetu zioten gero apezari, baño arek ere ez zekiela deus geiago esan zien. Barra-barra zabaldu zen gertakizun arrigarria erri osoan, eta ara eldu ziren erritar guziak, zaar eta gazte, Antiguako inguru eta bazterrak begiztatu eta aztertzer..("KRESALA" tik artua).
2. (*Traducir las siguientes formas verbales*):  
*lo diríamos, lo hubiéramos dicho, si lo dijéramos, si lo hubiéramos dicho,*  
*si compráseis, si no hubiéramos comprado, lo compraría yo, hubieran comprado,*  
*lo conocerías, lo hubiésemos conocido, si no lo conociéramos, si lo hubiérais conocido,*  
*me lo dirían, le hubiéramos dicho, si no te dijeran, si les hubieras dicho,*  
*si quisiéramos, si hubieras querido, ¿querrías?,*  
*si necesitáseis, hubiéramos necesitado, necesitarías,*  
*si tuviera (él), si no hubiera tenido, ¿tendríamos?,*  
*si supieses, si hubiérais sabido, ya lo sabría (yo),*  
*si se te perdiesen, si se me hubieran perdido,*  
*si se te hubiera caído, si no se les olvidase.*
3. (*Euskeraz ezari*): *Ya te lo diría (yo), si supiese que no se lo vas a decir a nadie. No quisiera para mí lo que no quiero para otros. Si me lo hubieses dicho ayer, te lo habría traído hoy. ¿Qué harías si tuvieses mucho dinero? Si te preguntaran donde estoy, diles que he ido a la calle, pero que vendré enseguida.*

## OGEITALAUGARREN IKASGAIA

### IZTEGI — Vocabulario

txapel	<i>boina</i>	begiko	<i>simpático</i>
galtzerdi	<i>calcetín</i>	loxintxari	<i>zalamero</i>
oski, zapeta	<i>zapato</i>	zoli	<i>perspicaz, sonoro</i>
ezpartzin	<i>alpargata</i>	ergel	<i>insustancial, memo</i>
sakel	<i>bolsillo</i>	oiñuts (ik)	<i>descalzo</i>
bitxi, pitxi	<i>joya</i>	biluts (ik)	<i>desnudo</i>
ola, lantegi	<i>taller, fábrica</i>	gaztigatu	<i>anunciar</i>
denda, saltoki	<i>tienda</i>	atertu	<i>escampar</i>
ostatu	<i>posada, fonda</i>	otu, bururatu	<i>ocurrirsele a uno</i>
jauregi	<i>palacio</i>	susmatu	<i>sospechar</i>
estalpe	<i>cobertizo</i>	debekatu	<i>prohibir</i>
zurubi	<i>escalera</i>	ukatu	<i>negar</i>
ortzots	<i>trueno</i>	sarrera	<i>entrada</i>
tximista	<i>rayo</i>	atraera	<i>salida</i>
oiñuztura	<i>relámpago</i>	zulo	<i>agujero, hoyo</i>
sargori	<i>bochorno</i>	ertz	<i>esquina, borde</i>
gandure	<i>bruma</i>	unc	<i>instante, momento</i>
intz, zunde	<i>rocío, relente</i>	tarte	<i>intervalo</i>

### MODO POTENCIAL: Auxiliar

Intransitivo (NOR)			Transitivo (NORK)		
	Presente	Pasado		Presente	Pasado
ni	naiteke	ninteken	nik	dezaket	nezaken
zu	zaitezke	zintezken	zuk	dezakezu	zenezaken
bera	l(a)iteke	ziteken	berak	dezake	zezaken
gu	gaitezke	gintezken	guk	dezakegu	genezaken
zuek	zaitezkete	zintezketen	zuek	dezakezute	zenezaketeten
aiek	l(a)itezke	zitezken	aiek	dezakete	zezaketeten

*Este auxiliar corresponde en español al Presente y Pretérito Imperfecto de Indicativo del verbo "PODER" (puedo... podía...) y va siempre precedido de un verbo infinitivo: etorri zaitezke, (puedes venir) artu zenezaketeten (podáis tomarlo). En el transitivo, intercalar una "Z" para objeto plural: ekarri dezazket (los puedo traer), artu zenezazketeten (podáis tomarlos), o bien sustituir la "E" del objeto por "IT" pluralizante: ekarri ditzaket, artu zentzaketeten.*

## 24<sup>a</sup>. LECCION

### OBSERVACIONES SOBRE EL MODO POTENCIAL Y EL VERBO "PODER"

1. La forma negativa de este Modo Potencial no se hace, como en los demás casos, con la negación "EZ", sino con "EZIN". Tiene entonces el significado de imposibilidad actual de realizar una acción después. Así:

EZIN DEZAKEZU ori esan	= no puedes decir éso
EZIN jan LITEKE ori	= no se puede comer éso
EZIN DEZAKEGU gezurrik esan	= no podemos mentir
EZIN etorri ZINTEZKETEN goizago?	= ¿no podíais haber venido antes?

2. Con la misma negación EZIN, pero sustituyendo los auxiliares del Modo Potencial por los del Indicativo, se expresa la idea de "no poder" algo que se está ya realizando en el momento presente. Así:

EZIN ulertu DUT au	= no puedo entender ésto
EZIN ibilli NAIZ azkarrago	= no puedo andar más deprisa
EZIN aztu DITUGU egun aiek	= no podemos olvidar aquéllos días.

3. Para expresar esta idea de "poder" y "no poder" en todos los demás tiempos que no sean el Presente y Pretérito Imperfecto de Indicativo, empleamos los verbos AAL-IZAN (poder) o EZIN-IZAN (no poder), con auxiliar intransitivo o transitivo según el verbo que les preceda:

	ETORRI (NOR)	EGIN (NORK)		
... aal-izaten	naiz	dut	=	suelo poder ...
... aal-izaten	nintzen	nuen	=	solía poder ...
... aal-izan	naiz	dut	=	he podido ...
... aal-izan	nintzen	nuen	=	pude ...
... aal-izango	naiz	dut	=	podré ...
... aal-izango	nintzen	nuen	=	habría podido ...
... aal-izango	nintzake	nuke	=	podría ... (si ...)
... aal-izango	ba-nintz	ba-nu	=	si pudiera ...
... aal-izan	ba-nintz	ba-nu	=	si hubiera podido ...

Para la negación, cambiar AAL por EZIN delante del verbo:

EZIN etorri IZAN NINTZEN	= no pude venir
EZIN ekarri IZAN NUEN	= no lo pude traer



## IRAKURGAI

1. AMA!... Gure euskera maite onek daukan itzik gozoena eta ederrena: Ama! Guziok, aundi naiz txiki, bai aberats bai beartsu, adeiz (begirunez) esaten dugun izen maitagarria. Nork azaldu dezake ama baten seme-alabentzako maitasuna?. Nola aditzera eman, ama batek bere seme-alabak azi eta bear dan bezala erakusteko artzen ditun nekeak? Amaren maitasun neurrigabekoa! Nork ez du entzun gaizkille arren gertakizun negargarria?  
... Urkamendira eraman zuten gaizkille bat. Lagunen esanak, apezaren azalpenak, dana alferrik: ez zion iñori jara eman nai, arren biotz igartuan ez zegon damutasunik... Itsukeri ortan ilko ote zen, ba? Ez! An zegoen bere ama, gau ta egun otoika eta negarrez. Eta ez deusek eta ez iñork erditxi-eziña, amaren negar eta otoitzak egin zuten. Goi-argi batek ikuturik, gurutzeari begira ta "jesus"ka eman zuen azken atsa gizagajo arrek. Orra or amaren indarra, amaren maitasuna. Maite dezagun biotz-biotzez gure ama!
2. Sartu liteke (laiteke)?. Sartu naiteke? Ezin etorri zaitzekete goizago? Ezin etorri izan gara orain arte. Atzo ezin etorri izan giñen. Udan baserrira joan aal ba-giñe! Nola etorri aal izan zara gu baño lenago? Ez dut uste Erroma'ra joan aal izango garanik. Ez dakit larunbatean etorri aal izango naizen. Donostiarrak ere etorri aal izan ba-lire, berreun baño geiago bilduko giñen. Nun erosi liteke liburu ori? Ezin ikusi ziteken deus. Diruz erosi aal izango ba-litz, askok erosiko lukete. Ez dut uste emendik ara ordu batean joan litekenik. Aal ba-da, gaur bertan bukatu bear dugu. Ezin egon zaitzekete geldirik pixka batean?
3. Gukin ekarri genezaken, baño bultziz (trenez) bialdu genuen. Ori ta geiago egin dezaket zure alde. Gaur ezin egin izan dut jardukizuna. Bakarrik egin aal izan duzu? Or ez daude ongi, katuak jan dezazke-ta. Ezin jan dut geiago. Ezin zabaldu ditut begiak. Ezin lo-egin dut. Ezin izan duzu geiago egin? Ikusi dezakezu gero Begoña? Nai ba-duzu, bion artean erosi dezakegu. Noizko jakin aal izango duzu? Udan baserrira bialdu dezakezute. Ezin jakin izan dut oraiño nun bizi dan.

## IDAZKIZUN

1. (*Al dictado*). Jesus il-da gero, izara batean bildu zuten eta arri-zulo batean sartu. Goiz-aldera, oso goiz, emakume batzuk joan ziren, usai gozoz Jesus'en gorputza igurtzi eta era ortan usteldu gabe gordetzeko asmoz. Arri-zuloa zabal-zabalik ze-goela ikusi zutenean, arri ta zur gelditu ziren. Aingeru bat agertu zitzaien, esanez: --“Ez larritu, emakumeak! Jesus berpiztu egin da”. --Geroago, Jesús'en Ikasleak etxe batean sarturik zeudela, ate-leioak ongi itxirik, Jesus agertu zitzaien bat-batean etxe barnean. Ikasleak bildur ziren Arengana urbiltzeko, eta orduan Jesus'ek esan zien: --“ez bildur izan eta urbildu zaitezte!”--
2. (Euskeraz ezarri). *¿Podrás dormir con ése ruido? No podía creerlo (yo). Querere poder, éso se dice. A duras penas podían hablar. No podemos nacer dos veces. Puedes hacerte daño (tomar mal). Si pudieras saberlo. Yo no puedo hacer éso de ninguna manera. No la puedo olvidar. No pude verlo entre tanta gente. Le voy a comprar unos de hierro, para que no pueda romperlos.*  
*No ha podido venir. ¿No puedes andar más ligero? No podía (él) salir de allí. Pudimos haber venido ayer, pero... ¿estábamos tan bien allí! Entonces, ¿no podrás venir el domingo? No sé si podremos venir. No pudimos ir en el primer tren de la mañana y cogimos el siguiente. Podíais haberos quedado allí hasta el lunes. ¿Se puede saber qué hacéis ahí tanto tiempo? De ahora (de aquí) en adelante, ya podéis levantaros más temprano. Podéis venir a mi casa, si queréis. Vete despacio, que puedes caerte.*
3. *¿Ya sabes cuándo llegarán? ¿Si supiéramos por dónde van a venir! No me ha dicho qué tiene, pero ya sé que está muy mal. El sabrá porqué anda con esa chica. No sé quién ha sido la que ha venido; era una señora de edad. Ahora dí tú cuál prefieres. Todavía no sabemos adónde iremos en vacaciones. Luego te diré porqué no vinimos ayer. Dime qué tal habéis andado.*

## OGEITABOSGARREN IKASGAIA

### IZTEGI -- Vocabulario

mospel, ospel	<i>sabañón</i>	garden	<i>transparente</i>
bettor	<i>orzuelo</i>	agiri	<i>descubierto, evidente</i>
min-bizi	<i>cáncer</i>	legun, leun	<i>liso, suave</i>
berako	<i>diarrea</i>	ezberdin	<i>desigual</i>
zeldor-itsu	<i>divieso</i>	ubel	<i>morado, amoratado</i>
birikeri	<i>pulmonía</i>	kutsukor	<i>contagioso</i>
izaiñ	<i>sanguijuela</i>	xurgatu	<i>chupar, mamar</i>
izara, maindere	<i>sábana</i>	gaiztotu	<i>enconarse</i>
buruzki	<i>manta</i>	aunditu	<i>hincharse</i>
dardara	<i>temblor, vibr.</i>	ikertu	<i>visitar, examinar</i>
otzikara	<i>escalofrío</i>	ordaindu	<i>pagar</i>
atxokor, kilika	<i>cosquillas</i>	ekin	<i>insistir</i>
atsa, arnasa	<i>aliento</i>	jarraitu	<i>seguir, continuar</i>
bizkar	<i>espalda</i>	aalegin	<i>esfuerzo</i>
sorbalda	<i>hombro</i>	zeregin	<i>quehacer, ocupación</i>
birika	<i>pulmón</i>	amorru	<i>rabia</i>
saiets-ezur	<i>costilla</i>	tenke	<i>porfía, tozudez</i>
gerri	<i>cintura</i>	urriki	<i>pena, lástima</i>
este, ertze	<i>intestino</i>	ospe, izen	<i>fama, renombre</i>

### ADITZ-JOKOA -- Conjugación

#### FORMA OBJETIVO-RECEPTIVA (ZER NORI NORK) DEL MODO POTENCIAL TRANSITIVO 27.

nik	dezaki...	(neri)	IDA + ket	<i>Nota: Estas formas corresponden al Presente de Indicativo del verbo "poder". Con objeto plural, hay que intercalar siempre una Z.</i>
zuk	dezaki...	(zuri)	ZU + kezu	
berak	dezaki...	(berari)	O + ke	
guk	dezaki...	(guri)	GU + kegu	
zuek	dezaki...	(zuei)	ZUE + kezute	
aiek	dezaki...	(aiei)	E + kete	

**Ejemplo:** Oraintxe egin dezakizuket (*ahora mismo te lo puedo hacer*)  
 Esan dezakigukezu (*¿nos lo puedes decir?*)  
 Erosi dezazkiekegu (*se los podemos comprar - a él*)  
 Artu dezazkiekezute (*se los podeis tomar - a ellos*)

**OMEN:** *puesto delante del auxiliar o verbo conjugado, indica conjuntura (dicen que..., se dice que...): Zaarrak omen dire.*

**OI:** *asímismo, delante del verbo auxiliar o conjugado equivale al habitual "TEN" o "TZEN": Ara joan oi giñen (solíamos ir allá).*

## 25ª. LECCION

**ARTICULO ABSTRACTO "IK", "RIK".**— *Es invariable y se usa siempre que se quiere expresar algo no concreto, sino genérico. Se emplea por tanto en frases negativas, interrogativas, condicionales, etc. El verbo siempre en singular:*

Iziartxo 'k ez dauka ortzik = *no tiene dientes (diente alguno)*  
 Sagarrrik bai...? = *¿hay manzana? (alguna manzana)*  
 Betarik ba-nuke...! = *¿si tuviese tiempo...!*

*Otras veces el sufijo "IK" denota modo, estado, situación:*

bakarrik,	etzanik,	zutik,	bizirik,	barurik,	beterik,
pozik,	utsik,	ixilik,	zabalik,	oinutsik,	bilutsik,

### SUFIJOS MODALES

AN	{	eskean = <i>pidiendo</i>	doan, utsean = <i>de balde</i>
		onean = <i>a buenas</i>	jarraian = <i>de seguida</i>
KA	{	oiuka = <i>a gritos</i>	bulkaka = <i>a empujones</i>
		joka = <i>a golpes</i>	erdizka = <i>a medias</i>
		pixkaka = <i>poco a poco</i>	tarteka = <i>a trechos</i>
RO		geldiro = <i>lentamente</i>	biziro = <i>vivamente</i>
KI	{	txarki = <i>malamente</i>	poliki = <i>bonitamente</i>
		bereziki = <i>especialmente</i>	apalki = <i>humildemente</i>
KIRO		maitekiro = <i>cariñosamente</i>	lasaikiro = <i>holgadamente</i>
TAN	{	benetan = <i>en serio</i>	gezurretan = <i>de mentira</i>
		cgitan = <i>de verdad</i>	olgatan = <i>de broma</i>

**AUMENTATIVOS Y DIMINUTIVOS.**— *Hay dos sufijos aumentativos: "KOTE" y "TZAR", pero se usan poco: lodikote (gordinflón) kaikutzar (majaderote)... En cambio es muy usado el sufijo "TXU" o "TXO" y algo menos "TTO" y "ÑO": Mirentxu, semetxo, txoriño, aurtxo, ttikitto... (diminutivos).*

**INTENSIVOS.**— *Hay dos formas de reforzar la idea de los vocablos (en español la palabra "mismo"):*

Sufijos: { XE auxe, orixe, uraxe, alaxe...  
 { TXE ementxe, ortxe, antxe, onetxek, orretxek...

Prefijo: BER herori, aitak berak, etxe ortan bertan...

**Intensivos personales:** ni neu (neroni), zu zeu (zerori).

## IRAKURGAI

1. Orrelako jaiak, neretako, nekazariak lur berriak prestatzeko egiten dituten (dituzten) lanen antzekoak dire. Azia nolana eta nun-nai botatzen ba-da, aurrez lurra bear dan bezela landu gabe, alferrik galdu egiten da. Ez da landarerik aterako, eta sortuko ba-litz ere, landare makal eta indargabe izango litzake. Baño gure nekazariak, azia erein aurretik, makinatxo neke 28. artzen dute, belar txarrak erauzi, arriak baztarreratu, lurra ajolaz irauli..., eta orduan bai, orduan lurra egoki dago azia artzeko. Eta zer esango zenukete, nekazari batek orrelakoxe lan eta nekeak artu ondorean, "bai polita dagola nere soroa!" esan, eta besterik gabe, etxean sartu ta azia botako ez ba-lu? Zoro aundi bat dala esango genuke, eta ederki esan ere. Ez gaitezen ba, gu, aren antzeko zoroak izan. Gure arteko jai polit ori lurra lantzea bezala da. Baño gero igali onak bildu nai baldin ba-ditugu, ez dezagun aztu azia erein bear dugula aurretik.
